


Oilategitik

4.alea





NON ZER

- 3-4 ALKIZA, ATZOKO, GAURKO ETA ETORKIZUNEKO HERRIA
- 5-6 ZERGATIK SENIDETU KUBAKO ALQUIZAR HERRIAREKIN ALKIZARRAK
- 7 KUBAKO KULTARA ETA HIZKUNTZA ZAHARRAK
- 8-10 MAITE, PELLO ETA GABA KUBAKO ALQUIZAR-EN IZAN DIRA
- 11 GIPIZKOAKO GOTZAINA ALKIZAN
- 12-14 BASERRIAK
- 15-17 PELLO, ANDER ETA KATTALIN: HOTZETIK ETORRITAKO ALKIZARRAK
- 18 AMIXURI
- 19-20 RAFA DIEZ ETA JOSEBA EGIBAR, BAKEGINTZAZ
- 21-22 GAIZKI DAGOENA ZUZENDU
- 23-24 SANTA KRUZ GERRILARIA ALKIZAN
- 25 BERTSOTAN
- 26-27 ARANZABE, ALKIZAKO PILOTARIA
- 28-29 ERNIOTIK EGURRA AIREZ JEISTEN ZENEKOA
- 30 MAISU ETXETIK GIZARTE ZENTRURA
- 31-34 TOPONIMIA III, ARANA ALDEA
- 35 OIER GOIKOETXEAREN AMARI ELKARRIZKETA
- 36 ORIOKO IRTEERA
- 37 AMAIARI ELKARRIZKETA
- 38-39 IKASTURTEA ARGAZKITAN
- 40 TXIKIEN IPUINA: ERENSUGEA ETA JIRAFIA
- 41-42 BITXIKERIAK
- 43-44 PATXI ARTZAMENDIREKIN HIZKETAN
- 45 GURE PIZTIAK
- 46-47 MIGEL IRAZUSTA ALKIZAKO SEME ETA ESKULTORE BARROKOA, 1665-1743
- 48-53 ALKIZAKO MUGARRIAK ETA HERRI MUGAK
- 54-55 AGENDA 21: HERRI PLANA DEFINITUTA ALKIZAN
- 56-59 URTEA ARGAZKITAN
- 60-61 ARGAZKI ZAHARREKIN EGINDAKO LANAK
- 62 SAN ISIDROTAKO ASTE KULTURALA ARGAZKITAN
- 63 DENBORAPASAK

ARGITARATZAILEA ETA KOORDINAZIOA:: ALKIZAKO OILATEGITIK K.E.
TIRADA: 600 ALE **LEGE GORDAILUA:** SS.814/01

*OILATEGITIK ALDIZKARIA DOHAIN BANATUKO DA ETA EZ DU BERE GAIN HARTZEN
BERTAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUNKIZUNIK*

ALKIZA: ATZOKO, GAURKO ETA ETORKIZUNEKO HERRIA

M^a Jose Sanchez Plaza (idazkari ohia)

Gipuzkoako Lurralde Historikoa 88 udalerriek osatzen dute. 700.000 lagunetako biztanleria duen lurralde batentzat herri gehiegi direla diote batzuek, bereziki kontuan hartuz udalerririk horietako hogeita zortziek, 2.000 biztanlez beherako populazioa dutela, herri txiki bezala ezagutzen ditugunak hain zuzen ere.

Alkiza herri txiki izaera duten 28 udalerririk horien artean aurkitzen da, gaurko egunean 323 biztanle dituelarik. Gipuzkoan bakarrik 14 herri dira biztanleria gutxiago dutenak. Azken hamarkadatan landa eremuko herrietan populazio beherakada nabarmena izan baldin bada ere, hiriguneetan bildu delarik populazioaren gehiengoa, badirudi datozen urteetan egoera horri buelta emango zaiola, beharbada etxebizitzaren prezio altuak eta bestelako faktoreek eraginda jendea berriz herri txikietara datorrelako.

XXI mendean herri txikiak erronka garrantzitsu bati egin beharko diote aurre, udalerririk izaera eta herri nor-tasuna mantendu, denboran ez desagertarazteko.

Udalerririk kategoriarekin mantentzeari dagokionez esan behar da maila instituzional ezberdinetatik azpimarratu dela behin eta berririk lurraldea zatituegia aurkitzen dela eta horrek udal mailako zerbitzu publikoen eskaintzan eragiten duela. Beraz etorkizunari begira, "euskal herriak" mantendu edo "euskal hiria" sortzearen artean aukeratu beharko dela dirudi.

Herri txikiak egun duten apustu nagusia da, nahikotasun ekonomiko finantzieroa lortzea eta herritarrek dituzten gutxieneko zerbitzu publikoen beharrak asetzera. Hiri batek edo herri handi batek eskaintzen dituen zerbitzuekin alderatuta, badirudi herri txikietako biztanleak eskubide gutxiagokoak direla, nahiz eta nire ustez horrelako baieztapen bat egiteko hainbat faktore uztartu beharko lirarteke. Egia da donostiar batek esaterako Udaletxea egunero irekia duela edo Polikiroldegia eta autobus geltokia auzo bakoitzean, hori bai babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko beste 20.000 lagunekin batera zerrenda egin behar du, autoa aparkatzeko egunero ordu erdiko buelta eta asteburuetan tabernetako soinua goizeko 5.00ak arte

pairatu behar du.

Agian bizimodu eta bizitoki bakoitzak dituen abantaila eta desabantailak neurtzean legoke erantzuna, bakoitzak bere aukera egingo lukeelarik.


Gipuzkoako Batzar Nagusiek 1995 urtean 4/1995 Foru Araua onartu zutenetik eta ildo berean 2003 urtean 2/2003 Foru Araua, Gipuzkoan udalerririk berriak sortzeko aukera erabat agortuta geratu da. 1986 – 1994 urte bitartean hainbat desanexio gertatu ziren, udalerririk berriek sorrera ekarri zutenak, besteren artean, Lasarte – Oria (1986 urtea), Astigarraga (1987 urtea), Orendain eta Baliarrain (1988 urtea), Altzaga (1990 urtea), Leaburu eta Gaztelu (1994).



Aran bailarako baserri zahar eta etxe berriak (Xabier Artola)

Gaur egun indarrean dagoen araudiak udalerririk interes propioak kudeatzeko autonomia aitortzen badie ere edo herri batek izaera historiko bat frogatu badezake ere, udalerririk baten mugen edozein aldaketek Gipuzkoako Batzar Nagusien onarpena behar dute eta, modu horretan, 2/2003 Foru Araua oso garbia da, udalerririk berri bat sortzeko betebeharrak nagusienak ondorengoak izanik:

2.500 biztanle baino gehiagoko populazioa.
Udalerririk ezberdinen populazio guneen artean gutxienez 3.000 metrotako lur hiritarrezinako distantzia.
Baliabide ekonomikoaren nahikotasuna.



Itziar edo Igeldo bezalako herri/auzoei udalerrri izaera eskuratzeko atea erabat itxi zaizkie. Gogoratu, herri izaera, historia, kultura, ohiturek etab ematen dutela, udal edo udalerrri izaera ordea, egungo egitura politiko eta juridiko hutsa dela.

Bizkaian baldintzak leunagoak direla esan dezakegu. Modu honetan 2005 urtean Markina – Xemein edo Ziortza – Bolibar bezalako udalerrriak sortu ziren.

Herri nortasuna mantentzeari dagokionez, etorkizunari begira lan handia egiten jarraitu beharko da herri bakoitzean. Etxe berriak, globalizazioa edo kultur elkartrukaketak neurri batean mehatxutzat hartzen baldin badira ere, herri izaera galtzea baino gehiago bere aberastea ekarriko dutela uste dut.

Alkizarrok, etorkizunari begira, ez dut uste udalerrri kategoria edo herri izaera galduko duzuenik, hori bai, egungo herri giroa, ingurua, udala etab mantentzeko

inguruan, ohituretan, zerbitzuetan etab, eta landa eremuko herri txiki bat eta bere biztanleak ezagutzea pertsonalki oso aberasgarria izan da. Alkizatik daramadana oroitzen ezin hobea da eta hainbat istorio xeble ere, oraindik ezin dut sinetsi Asteasutik Alkizara datorren errepidean bi kotxe batera sartzen ote diren eta errepidean noala oraindik kotxe ilarak sortzen dira nire abiadura motelaren ondorioz. Elurtearen ondorioz izandako bitxikeriak ere hainbat dira, traktore buelta eta paisai ikaragarria. 2005 urteko negu hotz eta elurtuan Alkizan izan nintzela gogoratuko dut beti.

Hemendik aurrera udaletxean ikusiko ez bagara ere, etorriko naiz bisitan, oraindik hainbat paraje ezagutzeko geratzen baitzaizkit. Hori bai, badakit Sakamidra auzoa, ezkutuan baldin badago ere, existitzen dela.



Santiago ermitako etxe berriak (xabier Artola)

eta, zergatik ez, hobetzeko lan egin beharko duzue eta, dudarik gabe, parte hartu.

Bi urtez zuen herria den Alkiza eta biztanleak ezagutzen pasa ostean berezko nortasuna litzateke azpimarratuko nukeen Alkizarren ezaugarri nagusia. Denbora honetan ikasitakoa izugarria izan da, beharbada nire herria, Erreterria, oso ezberdina delako bai



ZERGATIK SENIDETU KUBAKO ALQUIZAR HERRIAREKIN ALKIZARRAK

Pello Joxe Aranburu

Alkiza herri txikia izanik, badu bere xarma, historia luzea eta eragin zabala urteetan zehar lortua. Herri txiki horretan, bada, jaio ziren eskultore, arkitekto eta pertsonaia ospetsu asko. Beste anit-



Beste adibide garbi bat Hondarribiko ALKIZANEA, Alkizarren baserria dukegu. Bertan jaio eta bertatik zabaldu ziren hiru Santxo kapitain haiek. Hondarribiko baserri hura alkizarren batek eraiki zuen, nik horretan ez dut dudarik. Fermin Olaskoaga lagunak eta bere kideek, HONDARRIBIKO BASERRIAK izeneko liburuan, hauxe diote baserri hartaz: 1581n, lehen aldiz azaltzen omen da Alkizanea baserria Hondarribian, 1638an, frantsesek kiskali eta berreraikia izan zen, eta 1976an, Hondarribiko Akartegi auzoan kaleko etxe berriak eraikitzeke suntsitu zuten arte, bertan iraun zuen.


Kubako herriari izena emango zion Alkizako Santxo kapitainaren arbasoak Alkizanean jaio ziren XVI. mendean. Kubako Alquizar

zek, ordea, arbasoak izan zituzten alkizarrak, Alkiza abizena gure herritik hartu eta hedatu zutenak hamaika lekutara.

Erruz eta garaiz zabaldu ere. Izan ere, Alkiza abizena ingurumarian, herrialdean, ondoko probintzietan eta Ameriketan ere agertuko da. Adibide bakar batzuk emango ditut: hain zuzen, 1348an, Alkizako Santxo Migel zen Tolosako alkate; ondorengo mendeetan, Donostia, Gipuzkoa eta Nafarroako agintarien artean leku frankotan Alkiza abizena dokumentaturik dago, esate baterako, Iruñeko bikario jenerala Alkiza doktorea izan zen, Nafarroako elizbarruti osoan berak zabaldu zituen Trento kontzilioko erabakiak.



Udaletxea



Jose Marti

Badirudi Santxo Alkizak Kuban nekazaritza bultzatu eta lurralde hari Alquizar izena ipini ziotela. Beraz, bi herrien izenak elkarturik utzi zituen eta aurten bi herriek ofizialki senidetu dira. Elkarketa oparoa opa diet aipatutako bi herriei.

herriko eskolatan honako hauxe irakasten da: El año de 1616 llegó a la zona norte de Guanimar, donde había arboles frutales Sancho de Alkiza y empezó a cultivar la agricultura. Construyó algunas viviendas, que luego serían el núcleo de la actual Alquizar. Este pueblo le debe su nombre a



Luis Marquetti



Busto Villena

Sancho de Alkiza. Fue gobernador civil y militar de Cuba en unos pocos años hasta su muerte en 1619.



KUBAKO KULTURA ETA HIZKUNTZA ZAHARRAK

Inaki Irazabalbeitia

Munduko hizkuntzen atlasetan euskararen tokia bilatzen dugunean, hor bakarrik eta isolaturik, ahaide eza-gunik gabekoen artean topatuko dugu sailkaturik. Euskara senidetzeko ahaleginaren faltan kontzientzian zorrik ez dute munduko hizkuntzalariek, benetakoek zein sasikoek, nahiz eta orain arte asmatu ez duten.

Makina bat teoria entzun edo leitu dituzu, hain segur, euskararen jatorriari buruz: Kaukasoko hizkuntzak senide dituela, berebereraren familikoa dela, garai bateko iberiera gure kide zela eta Federiko Krutwig zenak, Garaldea izeneko lurralde hipotetiko batean bilduta euskara, quantxea eta hizkuntza batzuk jarri zituen.

Utz dezagun alde batera euskararen gorabeherak eta lot gakizkion mamiari. Izan ere, gure Alquizarko senideek guk gorde ahal izan dugun altxorra ezin izan dute gorde: bertako hizkuntza alegia.

Europarrak bertara iritsi baino lehen hiru hizkuntza egiten ziren Kuban: ziboneiera, tainera eta karibera. Bi atzenak familia berekoak ziren, arauak familiakoak hain justu, eta oraindik bizirik irauten dute Ameriketara nahiz eta Kubatik desagerrarazi zituzten.

Taino leinuko indigenek, Ameriketako leinu gehienek bezala, ez zuten idazketa-sistematik garatu eta tradizioa oralki, ahoz aho, transmititzen zuten. Horretarako baliabide berezi bat usatzen zuten, euskaldunok bertsoak baliatu izan dugun maneran: areito izeneko dantzak eta kantuak. Areitoak ekintza sozial nagusia ziren. Batzuk erlijioarekin eta leinuko sinismenekin lotuta egoten ziren, beste batzuk, ordea, gerra-kantuak izaten ziren. Bi kasta nagusi egon ohi zen tainoen artean: herri xehea eta kazikeak, buruzagiak alegia. Hortxe dugu tainerak munduko hizkuntzetan utzitako arrastoetako bat. Urakana eta barbakoa dira horietako beste bi. Urakan hitzak bi osagai ditu: *ura*, haize, eta *kan*, gune.

Tainoa herri nekazaria zen eta lurrak komunalak ziren. Soberan bildutakoa leinuko festetan gastatzen

zuten. Jainkoengan sinesten zuten tainoek eta denek jainkoren bat zuten. Berarekin hauts aluzinogenoak arnastuz harremanetan jartzen ziren kohoba izeneko erritualaren bidez. Beste munduko bizitzan eta hilezkortasunean ere sinesten zuten.

Karibeak Orinoko ibaiaren ingurutik joan ziren Kuba eta gainerako Antiletara. Nahikoa basatiak omen ziren eta gerrazaleak. Antza, herriren bati eraso egiten ziotenean gizonezko guztiak akabatzen zituzten, baina emakumezkoak bizirik uzten zituzten. Eguneroko jatena nekazaritzatik eta arrantzetatik ateratzen zuten. Kariberak ere arrastoak utzi ditu gainerako munduko hizkuntzetan, esaterako: iguana, kanoa, hamaka eta sabana. Prestige ontziak Galizian isuritako petrolioak sortutako 'chapapote' delako horren izenak kariberan du jatorria. Izan ere, Karibe itsasoan naturalki sortzen diren galipotezko bolei horrela esaten omen zioten bertakoek.



Zibonei leinukoak K.a. 2000 urtean iritsi ziren kontinentetik Kubara. Itsaso, ibai eta lakuen ertzetan egin ohi zituzten herriak eta ez zuten ez zeramikarik ezta nekazaritzarik garatu. Biltzaileak ziren eta, itxuraz, bere dietan itsaskiek pisu handia zuten. Maskorraren teknologia lantzen zuten eta maskor-multzo ikusgarriak pilatu ziren bere bizilekuen inguruetan. Beren hizkuntzaz ez dakigu deus. Europarrak Kubara iritsi zirenerako, ziboneiak oso gutxi ziren eta toki gutxi batzuetan baino ez ziren bizi, zokoratuta. Konkistatzaileak 'indio zaharrak' esan zieten.

MAITE PELLO ETA GABA KUBAKO ALQUIZAR-EN IZAN DIRA

Badakizue Oilategitik aldizkaren ale honetan gure Alkiza eta Cubako Alquizar herrien arteko harremanak bideratzeaz eta sendotzeaz hitz egiten ari garela. Udalak bien arteko anairatze prozesua aztertzen ari da. Ba, hara non, ale hau inprentan sartzeaz dagoeanean, Alquizar bertara bidaiaria bat egin eta itzuli direla auzoak ditugun Pello, Maite eta Gaba. Cubako herri hura hobeto ezagutzeko eta zuei ezagutarazteko ezin genuen beraiekin hitz egiteko aukera galdu, eta horretan ahalegindu gara korrika eta presaka. Elizegin elkartu gara Pello, Maite eta euren alaba Ibonerekin. Hara Pellok eta Maitek argitasun handiz kontatutakoa:

Zer dela eta Alquizar-era bidaiatzea?

Bada jadanik denbora, lagun batzuek egunen batean bidaiaren bat egin ahal izateko dirua jartzen hasi ginen. Ez genekien noiz eta nora joango ginen. Denbora bat horretan eman ondoren, ahaztu ere egin ginen ia, baita dirua jartzeaz utzi ere. Baina halakoren batean Gabak esan zigun ea zergatik ez ginen Cubara joaten, eta era berean Alquizar herria ikusi, eta bertakoeekin egon. Ordurako hasiak ziren Alkizari bilerak gai honen inguruan. Kontuan izan lagun koadrila horretan, denak, orain 20-25 urte inguru gure ezkontzabidaia Habanara egin genuela. Beraz, bidaiaren helburua bikoitza zen: batetik garai zaharrak gogoratzea, eta bestetik Alquizar ikustea. Peperekin hitz egin genuen, eta Udaletxearen opariak eta eskutitz bat helarazi zizkigun.

Zenbat lagun zineten?

Azkenean bost elkartu ginen: Iñaki Arratibel, Mariado Zalakain eta gu hirurok, hau da, Maite Iraola, Pello Aristegi eta Jose Angel Gabarain "Gaba".

Noiz eta nondik atera zineten?

Uztailaren 21ean Madrilen hartu genuen hegazkina, eta 29an itzuli ginen. Habanako hotel batean hartu genuen ostatu.

Eta Alquizar-en, noiz egon zineten?

Alquizar-en egun oso bat pasa genuen, goizetik arratsera. 24an izan ginen, gainera 26an Cubako jai han-

dienetako bat zen : "Asalto a Moncada"ren ospakizuna hain zuzen ere. Eta han jaiak ia hiru egunez ospatzen dituztenez, gu joan ginenean erdi-jai zen Alquizar-en.

Beraz, arazoak izango zenituzten Udaletxean inorekin hitz egiteko, ezta?

Bai, jakina. Ez zegoen inor ere ez, baina zorte handiz eta kasualitatez "Secretario del Poder Popular" delakoa azaldu zen. Honen izena Jesus Garcia Yañez da.



Presidentea, presidenteorde eta idazkariari txapela ematen

Ezer baino lehen, esan behar dizuegu han Udaletxeei "Sede del Poder Popular" deitzen dietela, eta Alkateak "Presidente del Poder Popular" izenez eza gutzen direla.

Ondo da, baina esaguzue, zer nolako harrera egin zizuen "Secretario" horrek?

Hasieran txarra, ez zitzaion batere gustatu gu han azaltzea, Ministeriora joateko esan zigun, Habanara. Baina Alkizako Alkatearen idatzia erakutsi genionean, bat-batean aldatu zuen jarrera, eta Presidentea (Alkatea) aurkitu ez arren, herria erakutsi zigun, bai eta bi museo ere. Orduan Alquizar-eko "Presidente de Cultura" delakoa ezagutu genuen.



Presidentea Alkizako udalak oparitutako makila onartzen

Hasiera gogorra orduan, ezta? Zuek han bakar-bakarrik...

Ah! Ez dizuegu esan ez geundela bakarrik. Cuban lagun bat genuen: bertan egonaldi luzeak egiten dituen Txitxardin Beltza jatetxeko Felix. Alkizan batzuek ezagutzen dute. Ba, honek bertako adiskide baten laguntza eskaini zigun egun horretarako, eta Ana Maria izeneko cubatar bat eta haren alaba izan ziren gurekin egun hartan. Ezinbestekoa izan zen haien laguntza, bestela galduta geunden.

Jarrai dezagun, nola borobildu zenuten eguna?

Bazkalaurretik Presidentea ezagutu genuen. Haren izena Juan C. Diaz Martin da. Gure alkatearen esku-titza eta Alkizako Udalak emandako "euskal makila" bat eman genion, baita gure partetik Alkizako armarrria brodatua zuen txapela bat ere. Eraman genituen hainbat opari ere eman genien, gehienbat eskolako materiala. Gure lagun Mariadok Eusko Jaurlaritzako Turismo sailean lan egiten duenak, Euskal Herriari buruzko zenbait esku-orri eta bestelako materiala eman zien.

Zer nolako harrera egin zieten opariei?

Ezin hobea. Asko gustatu zitzaizkien guztiak, bereziki "euskal makila". Hizketan jardun genuen, eta besteak beste, esan ziguten Gipuzkoako Errenteria eta Lanzaroteko Arrecife herriekin senidetuak daudela.

Beno, konta iezaguzue ondoren mesedez, nolako den Alquizar herria.

Han "lokalidade" deitzen dieten auzo edo etxe-multzotan banatua dago. Bost dira garrantzitsuenak, eta

haien arten Guimar eta Alquizar izenekoak dira jendetsuenak. Biztanle gehienak nekazariak dira. Tabakoa, fruta, eta azukre-kaña ekoizten dute. Baina han ez dago lurretik ateratakoa lantzeko fabrikarik. Hori beste leku batzuetan egiten dute. Hangoak nekazari soilak dira.

Zenbat biztanle ditu?

Horri bai, galdera horri zehatz-mehatz erantzungo diogu (barrezka): 2004ko zentsuan, 22.636 biztanle ziren.

Herri handia beraz

Bai, bai, gure Alkizarekin alderatuz gero, oso-oso handia da, dena den, bizi-kalitatea gurea baino askoz ere kaskarragoa da.

Gaizki bizi al dira, ba?

Gure ustez, gurekiko 50 urtetako atzerapena dute. Hori bai, inor ez da goserik hiltzen, "cartilla de racinamiento" delakoak janaria ziurtatzen baitie. Etxea, osasuna eta hezkuntza ere bermatuak dituzte. Beste kontu bat da nolakoak diren.

Orduan "mendebaldekoen" inbidian biziko dira, ezta?

Egia esan, bai. Hori bai, lan handirik ez dute egiten, baina gurekin alderatuta ez dira ondo bizi, ez. Ikasketa unibertsitarioak askok dituzte, maila kulturala, oro har, altua da, baina ondasun materialak falta zaizkie. Lehen Soviet Batasunaren Errepublikaren garaian askoz ere hobeto bizi ziren, baina hark berea egin zuenetik, akabo. Gu orain dela 21 urte izan gine-nean bestelakoak ziren kontuak. Bizi-kalitatea askoz hobea zen

Nolako garraioak dituzte?

Trenak ez du ezertarako ere balio. Habanatik egun osoan zehar bakarria abiatzen da, eta hura gaueko 10etan. Beraz, Alquizar-era goizeko ordu bietan hel-tzen da. 40 kilometro egiteko 4 ordu behar ditu. Errepideak ez daude gaizki, baina oso-oso gaizki sei-nalizatuak daude.

Eta autorik? Ba al du jendeak autorik?

Autoak ia funtzionarioek bakarrik dituzte. Biztanle arruntek ezin dute autorik ordaindu, Alquizar-eko Presidentea esate baterako, 30 urte zituen Seal 124 zahar bat zuen.

Eta eskolarik. Ikusi al zenuten eskolarik?

Hiru eskola omen daude. Guk bat ikusi genuen. Bernetegia zen. Garraibide haiekin bertakoa ez denak ezin du egunero etxera joan, beraz, bertan geratzen da lotan. Deigarria zen oso eskolak "Regimen de autoabastecimiento" delakoa zuela, hau da, bizi ahal izateko behar dutena eskolan bertan ekoizten dutela. Baratza zuten, txerriak, oiloak...

Nolako larruazala dute Alquizar-eko biztanleek?

Denetik ikusten da, Zuriak, beltzak, mulatoak... Gehienak zuriak edo mulatoak dira

Esandakoaz gain, harrigarria gertatu zitzaizuen zerbait?

Benetan harrigarria Habanako malekoian ikusten dena da. Milaka pertsona biltzen dira gauero, musika entzun, dantzatu, edota hitz egitera. Ez dute presaka bizi zer den ezagutzen, eta lasai-lasai goizeko bostak arte aritzen dira solasean.



Alquizar-en

Eta azkenik, zer egin dezakegu guk hemendik haiei laguntzeko?

Badakigu Alkizako Udalak senidetzea bultzatu nahi duela. Han esan ziguten horretarako "Comision de Relaciones Internacionales" delakoari eskutitz bat bidali behar zaiola zergatiak eta eurek zer jasoko luketen aipatuz. "Asamblea Nacional del Poder Popular" deitzen denak erabakitzen du eskaera onartu ala ez. Onartuz gero, ondoren edozer bidalketa edo trukaketa dela, aipatutako "Comision de Relaciones Internacionales" delakoaren bidez egin behar da.

Pertsona bat du Cubako gobernuak Argelio izenekoa, Euskal Erkidegoko eta Nafarroako edozein herrirekin egiten diren senidetze hauez arduratzen dena.

Ez da kontu erraza, orduan.

Benoa, saiatu egin behar. Gainera oraintxe bertan ari omen dira aztertzen Senidetze-legea edo arauak. Udazkenerako bukatuko omen dute guztia eta ondoren Senidetzeen Jai Internazionala ospatuko omen dute. Eta hara kasualitatea, aurten Jai hori Alquizar herrian izango baita.

Zein dira zuen ustez Alquizar herriak dituen premi larrienak?

Denetik behar dute. Behar materiala dute. Profesionalak badituzte, baina ez dute lanabesik. Bereziki paperaren premia dutela aipatu ziguten. Han papera lortzea oso zaila egiten zaie nonbait.

Eta zer dute eskaintzeko?

Aberastasun kulturala. Besterik ez, baina gutxi al da?

Aizue, baina Alkiza ez al da txikiegia hain handia den herri bati lagundu ahal izateko?

Bakoitzak ahal duen heinean lagun dezake. Hori bai, ez nork bere kasa. Organizatu egin behar da. Proiektuak martxan jarri behar dira, zerbait zehatzetik abiatuta. Ondoren baimena lortu, eta garbi izan bide bakarra ekonomikoa dela. Dena hartzen dute: boli-grafo bat, arropa, ordenagailuak...

Mila esker Iñaki, Mariado, Pello, Maite eta Gaba, Ozeanoak urrundu arren, izenak bi herri elkar ditzan egin duzuen ahaleginarengatik.

GIPUZKOAKO GOTZAINA ALKIZAN

Josean Larrañaga

2006ko Urtarrilaren 15ean izan genuen Juan M^a Uriarte Gipuzkoako gotzaina Alkizako San Martin parrokian Sendotza sakramentua bertako lau gazteei ematera etorrira.

Gazte hauek bi urte t'erdiko bilakabidea edo prozesua egin dute Ernioebehea bailarako edo Pastoral Barrutiko beste 5 gazteekin batera (Asteasu; 4, Larraul 1...). Prozesu honetan hainbat gai eta ekintza burutu dituzte.

Elizarako eta Kristau izateko garai zailak diren arren, gazte hauek aurrera egitea erabaki zuten. Askok hitz egiten da gaur egun gazteetaz. Askotan beste garai bateko gazteekin konparatu ere konparatzen ditugu eta gehienetan ondorio berdintsua ateratzen ditugu nagusi geranok: gure garaian jatorrago, onago, dibertigarriago...ginela. Baina garai bakoitzari berea eman behar zaio. Gazte hauek bi urte t'erdiko prozesua egin dute eta asteen behin hortxe ibili dira Kristau sinesmena eztabaidan eta ikertzen.

Ekitaldi desberdinak egiten dituzte prozesu honetan:

- Gaurko gizartea aztertu
- Eliza aztertu
- Jesusetaz ikasi eta ebanjelioak ikertu
- Zine-foroak egin
- Otoitzaldiak antolatuta
- Gizarte honek baztertzen dituenak ezagutu
- Baztertuekin gure elizbarrutiak egiten duen lan soziala gertutik ezagutu.

Ez dute ohiturakeri batean erori nahi izan eta horregatik gaurko gizarte hau aztertuz, kristau izatea zer den, nola bizi eta abar eztabaidatu nahi izan dute.

Beraiek izango dira etorkizunean Kristau Elkarteri eutsiko diotenak.

Prozesua edo bilakabidea ez dute bakarrik egin. Larraul eta Asteasuko gazteekin batera egin dute. Ernioebehea Pastoral Barruti mailan egindako deialdiari erantzun dutenekin batera.

Ernioebehea Pastoral Barrutia Aduna, Alkiza, Amasa, Anoeta, Asteasu, Elbarrena, Irura, Hernialde, Larraul Billabona eta Zizurkilek osatzen dute. Hainbat pastoral lan elkarrekin burutzen hasita gaude. Elkarren arteko indarrak batu erantzun egoki bat eman ahal izateko. Horrela gazteen kasuan, bakarka batzuek elkartu ordez herri batzuetatik elkartu eta talde handiagoa osatu prozesua burutu ahal izateko.



Juan Mari Uriarte gotzaia, Igor Joxe Ramon Alaitz eta Josu

Giro ona sortu da beraien artean eta biltzen jarraitzea erabaki dute. Elkarren arteko berri izan eta hainbat ekitaldietan parte hartzea: elizbarrutian dauden hainbat zerbitzu sozialak ikusi, elizkizun nagusietan parte hartu (Aste Santua, ...) eta abar. Azken batean, gaur egun kristau izatea zer den eta nola gauzatzen den sakondu eta bizi.

Pozgarria da beti ere, etorkizunerako bai gizartearen eta baita elizaren zerbitzura ere, zerbait egiteko prest dauden gazteak badaudela jakiteak. Beraz, Animo eta aurrera !!

Baserriak 2006

Elizegi baserria

Gaur taberna bezala ezaguna den Elizegik izen eta izaera ezberdinak izan zituen/ditu urteetan zehar: Eleyçegui, Eleizegi, Elizegi Behekoa, Elizegi Garaikoa, beraz, bi familia bizi izan ziren, 1761 eta 1811 urteetan; gainera, garai batean baserri, estanko eta denda ere izan zen. Arpideko Joan apaiza Alkizako erretore hautatzean, 1583an, Elizegiren izena lehen aldiz agertzen da, Arpide Beheko Grazia bertan bizi baitzen. Arpide, Urruzola, Irazusta, Aranguren, Otaegi, Zabala, Geresta, Aranburu, Alkizalete, Olano, Lastiri, Irastortza eta Aranzabe abizeneko familiak bizi izan dira etxebizitza horretan.



Elizagi baserria



Etxaunberri baserria

Etxaunberri

Izenaren arabera baserri berria da eta Etxabegurengo semea zen Inazio Errezola arotzak eraiki zuen, 1777 aldera, Alkizako 1771ko kofradeen zerrendan ez baitago. Lehen, Rezola edo Errezola izena zeraman eta gaur Etxaunberri deitzen zaio. Bertan bizi izandakoen abizenak hauek izan dira: Rezola, Etxabeguren, Ezeiza, Mendizabal, Usandizaga eta Letamendia.

Etxaun baserria

Etxabe izeneko baserri bat Alkiza herriaren lehen dokumentuetan agertzen da, hau da, 1348an. Gerora erro bera izan zuten bost etxe ezberdin agertuko zaizkigu. Etxaun baserriaren izenak hauek izan ziratekeen: agian, 1348ko Etxabe hura, eta baziren, 1563an, bi Echebeguren, Etxabeguren edo Etxaun. 1568an Etxabegurengo Martin erregidore izan zen, beraz, etxearen jabe. Bertako biztanleen abizenak: Etxabe, Etxabeguren, Errezola, Beobide, Pagadizabal, Izukiza, Aldalur, Gorosabel, Iguaran, Ugalde, Astiasaran eta Goenaga. Gaur Iker Goenaga trikitilaria bertan bizi da.



Etxaun baserria



Etxabegoiena baserria

Etxabegoiena baserria

Etxabegoiena baserriaren izenak hauek izan dira: Etchebegoyena 1563an, Echave de suso, Etxabegoyena, Etxabegaina eta Etxabegoiena. Suteak 1763an kiskali ondoren, geroztik bi familia, nagusiak eta maizterrak bizi izan ziren, nahiz eta gaur hutsik aurkitzen den. Bertako biztanleen abizenak, berriz, honako hauek ezagunak dira: Etxabegoia, Arano, Urruzola eta Zubeldia.

Etxabe baserria

Egun Etxabe bezala ezagutzen dugun baserriak beste izen hauek ere izan zituen: Echave de en medio, Echave Vitartea, Echabebitarate, Etxabebitarate. . . Lehen aldiz, 1563an, bazen Echave de en medio eta, 1611n, Etxabebitarateko Jeronimo herriko juradu izan zen, beraz, etxe-jabe. 1695ean jabeak etxea berreraiki ondoren, 1769an suteak kiskali eta berriro jaso zuten, eta XIX. mendean bi familia bizi izan ziren. Bertako biztanleen abizenak: Etxabe, Etxabebitarate, Elola, Urruzola, Irazusta, Gavirondo, Esnal, Iruretagoiena eta Saralegi. Etxabeko Joan Domingo Elola Urruzola herriko maisu, idazkari eta azken notario izan zen, bere semea, berriz, Urrietako notario.



Etxabe baserria

Etxabetxiki baserria

Etxabetxiki baserria Esachipia izenez, 1563an, lehen-dabiziko aldiz ageri da eta beste izen hauek ere hartu izan ditu: Esabechipia, Etxabechiquia, Etxabe Txikia eta Etxabetxikia. Bertan bizi izan ziren nagusi eta maizter ezagunen abizenak, berriz, honako hauek dira, Esachipia, Arpide, Etxabebitarate, Etxabe Txikia, Orbea, Urkola, Arana, Zubiarrain, Ayerbe eta Saizar.



Etxabetxiki baserria

Etxesagasti baserria

Esesagasti izenez agertzen da lehen aldiz, 1563an, baina, mende berean Echesagasti erabiltzera pasatu ziren, idazkera berrian Etxesagastirekin geratzeko. Iadanik, 1565ean, Etxesagastiko Joanes herriko juradu izan zen, beraz, etxearen jabe zen. GFA-ko txostenaren arabera eraikuntza interesgarria da bere zuraje eta zenbait elementuengatik. Bertako biztanleen abizen ezagunak honakook dira historian zehar: Etxesagasti, Irarreta, Elola, Saizar, Mugika, Altuna, Olarra, Imaz eta Gonzalez-Etxeberria, azken hauek gaur bertan bizi direnak.




Etxesagasti baserria



Garaikoetxea baserria

Garaikoetxea baserria

Garaycoa izenez agertzen da lehen-lehenik, 1396an, gero Garaycoechea hartu zuen, euskal grafian, berriz, Garaikotxearekin geratzeko. Dena den, herrian Gaikotxetzat erabilia da. GFA-ko txosten teknikoaren arabera eraikuntzak baditu zenbait elementu bereizi: estela biribila, erdi-puntuko arkuak, gezi-leihoak. Badirudi garain batean ermita ere izan zela. Garaikotzeko Domingo, 1561ean, herriko erregidore zenez, bazen etxearen jabe ere. Bertako abizen ezagunak honako hauek dira: Garaiko, Garaikoetxea, Urruzola, Agirre, Irazabalbeitia, Arrasate, Elozeji, Barandiaran.



PELLO, ANDER ETA KATTALIN: HOTZETIK ETORRITAKO ALKIZARRAK

Urruzola-azpiko Elik eta Gorkak hiru haur errusiar adoptatu dituzte

Jose Mari Aranzabe & Imanol Lizardi

lazko abenduaren 22an heldu ziren Alkizara. Agian loteria bera izan zen eskuzabala Eli eta Gorkarekin, eta “gordo” gisa bonbotik bolatxo bat atera ordez, hiru bolatxo atera zizkien. Agian Olentzerok bi egunez aurreratu zuen bere etorrera, eta zakua bizipozez hustu zuen Aldapa bailarako baserri honetan. Kontua da Errusian termometroak 40 gradu zero azpitik markatzen zuen bitartean, Urruzola-azpiko sutondoan, bertakoen bihotzetan tenperaturak gora, oso gora egiten zuela

Nolatan erabaki zuten pausu hau ematea, zein gora-behera bizi behar izan zuten hau guztia egi bihurtu artean, eta eurek kontatu nahi ziguten guztia entzuteko asmotan, bisita bat egin genien aurtengo udaberriaren amaiera aldera.

Kontaiguzue lehenik eta behin, zer dela eta pentsatu zenuten haurra adoptatzea?

Hasteko esan behar dizuegu helduak ginela honetan pentsatzen hasi ginenean. Ez zen gazte garaiko erabaki bat izan. Izanak genituen seme-alabak izateko aukerak. Haurdunaldi bat ere bizi izan genuen, baina zoritxarra nagusitu zen, eta haurra galdu egin genuen. Orduan bere horretan utzi genuen kontua. Ez ginen beti horretan pentsatzen aritu. Baina halako batean elkarri esan genion guk geuk hasi behar genuela zerbaitetan, egunen batean seme-alabarik izan nahi bagenuen. “Edo orain, edo inoiz ez” izan zen bat-bateko burutzioa.

Eta zer egin zenuten?

Diputaziora jo genuen. Gure adina kontuan izanda, han esan ziguten ezertan hasi aurretik, ondo pentsatzeko ez ote zen egokiago haur bakarra adoptatu ordez, bi batera adoptatzea. Elkarri esan genion: “Behin hasiz gero, zergatik ez?” Ados geunden.

Eta hurrengo pausua?

Nazionalitatea. Nongoak izango ziren erabaki behar genuen. Ez zigun luze jo honetan ere bat etortzeak. Betidanik izan dugu Errusiarekin nolabaiteko lotura sentimentala. Pentsatu genuen aukera aparta zela hau, lurralde hura, eta haren inguruko guztia gertutik ezagutzeko. Eta gainera, posible zen.

Nolako da gisa honetako prozesu bat?

Guri “antipatikoa” egin zitzaigun (esaten digu Gorkak). “Ridikulua” sentitzen nintzen. Eta ez dut esan nahi Administrazioa zatar portatu zenik, ez eta gutxiago ere. Honela da eta kito. “Certificado de idoneidad” delakoa lortu behar duzu lehen-lehenik, pausak ematen jarraitu ahal izateko. Horretarako, hasteko psikologoek galdera mordo bat egiten dizute. Ia gure alaba izan zitekeen neska gazte-gazte batek gure bizitzari buruzko txosten bat egin behar izan zuen gero. Goitik behera aztertua sentitzen zara.



Gorka Ander eta Kattalinekin

Ulertzen duzu beharrezkoa dela, baina sentsazioa arraroa da. Gure galtzen tailaz izan ezik, beste guztiez galdetu ziguten (esan digu Elik). Mila bider errepikatzen zituzten gauza berak.

Beno, eta “azterketa” gainditu ondoren, zer?

Adopzio tramiteez arduratzen diren erakunde batzuk badaude. Erakunde hauen izena EKAI da, eta guk aukeratu genuena “Aipame” zen. Modu honetara egin ez gero, garestiago gertatzen da, baina merezi du, Askok errazten dizute dena. Une horretan egin behar zena, txostena Errusiako administrazioaren esku uztea zen. Eta horrela egin genuen,

Jaso al zenuten erantzunik?

Bai. Lehenik eskualde bat izendatzen dizute. Guri Leningradoren ingurua eman ziguten. Handik gutxira dei bat jaso genuen Kirov izeneko probintzian aukera bat bazegoela, baina bi haur izan ordez, hiru zirela esanez. Informazioa jaso genuen Errusiatik, eta nik (Elik esaten digu) esan nion Gorkari: “zuk erabaki”.

Bai, Gorkak erabaki zuen.

Ez, ez da egia (dio Gorkak), bion artean erabaki genuen. Patua beti omen da patu, eta onartu egin genuen.

Erabaki gogorra, ezta?

Ez pentsa. Gure ardura nagusia ez zen bi edo hiru haur ote ziren, osasunez ondo ote zeuden baizik. Ez genuen osasun arazo larririk izaterik nahi.



Eli eta Gorka bi txikienekin

Zer egin zenuten orduan?

Deia uztailen izan zen, eta irailaren bigarren astean Errusiarara bidaiatzen ari ginen.

Azkar egin zenituzten beraz, egin beharrekoak!

Behin hona iritsita bai, baina kontuan izan hau guztia hasi genuenetik bi urte igaro zirela. Denborarik gehien lehen aipatu dugun "Certificado de idoneidad" lortzeak ematen du; gainera, esan zigitenez gu aritu ginenean, jende gutxi zuten lanean, eta eskaera asko.

Beno, barkatu. Errusiarara bidaiatzen ari zineten.

Bai, iritsi ere iritsi ginen. Umeak ezagutzera gindozen. Aurretik baietza eman genien, hau da, hiru haur horiek guretzat nahi genituela esan genien. Ikusi, eta osasunez ondo zeudela ziurtatutakoan, "acta notarial" bat ere egin genuen, izen horiek zituzten hiru haur horiek nahi genituela baieztatuz. Hamalau orduz joan ginen trenez Hego Ekialderantz, Kirov izeneko probintziako izen bereko hirira. Umezurtz-etxera eramantuz gintuzten, eta han Ander-Andrej eta Kattalin-Kszeniaren ezaugarriez hitz egin ondoren, ea ezagutu nahi genituen galdetu ziguten.

Eta zer esan zenieten?

Zer uste duzue? Baietz, jakina. Eskuetatik heldu genituen, eta sala batean jolasten aritu ginen. Ez dugu sekula ahaztuko zein alaiak eta sinpatikoak iruditu zitzaizkigun.

Eta Pello?

Pello-Edouard zaharragoa denez, handik 400 kilometrorra zegoen eskola batean ari zen ikasten.

Aizue, zergatik diozue Ander-Andrej, Kattalin-Kszenia eta Pello-Edouard?

Bigarren izen hori euren jatorrizko izena da. Mantendu egin nahi izan diegu, eta hori dela eta, izen bikoitza dute hirurek. Dena den, guk Pello, Ander eta Kattalin izenez deitzen diegu.

Ondo da. Jarrai dezagun. Ezagutzen al zuten elkar?

Pellok bazekien beste anaia bat zuela, baina ezagutu, Kattalin bakarrik ezagutzen zuen, elkarrekin bizi izan baitziren.

Eta zer iruditu zitzaizuen Pello?

Are eta alaiagoa eta sinpatikoagoa. Ikusten duzue nolakoa den. Egia da bestalde, Pellorena beste baina baino gogorragoa izan zela. Haur gehiago zegoen han, eta euren bizi-baldintzak...

Beraz, hirurak ezagutzen zenituzten jadanik.

Ikaragarria izan zen. Ordura arte ilusioa besterik ez ziren haiek, aurpegia zuten. Bat-batean ideiak pertsona bihurtu ziren.

Baina orduan haurrik gabe itzuli zineten, ezta?

Bai, bai. Egia esan, kontu honen guztiaren une gogorenak denbora honetan bizi izan genituen. Abenduan joan ginen haurren bila. Halere, ez geunden ziur ezertaz ere. Epaiketa bat egiten da, eta behin betiko baietza hor ematen dizute. Oso gogorra da, zuk ez baitakizu sententzia berehala emango dizuten, edo hamabost egunetan itxaron beharko duzun. Katalunia eta Bilboko beste bi bikoteekin joan ginen Kirov-era. Haiek ere gure moduan epailearen sententziaren zain zeuden. Zorionez, epailea oso jatorra zen. Harrigarria gertatu zitzaigun konturatzea zenbaterainoko informazioa zuen gutaz. Sententzia guk nahi genuena izan zen, hau da, hiru bikoteek haurrak berehala eramantuz gintuzten geure etxeetara. Eromena izan zen.

Eta pozez txoratzen, zer egin zenuten?

Hiru haurrak jaso, eta Moskura joan ginen. Han tramitazio legal guztia egiten aste bat eman genuen, lkaragarritzko hotza egiten zuen, eta oso luzea gertatu zitzaigun.

Eta haurrak? Nola zeuden haurrak?

Urduri. Oso urduri zeuden. Begira, taberna baten sartu ginen, eta hainbestekoa zen urduritasuna eta antsia, Ander hozkaka edalontzi bat jaten ahalegindu zela. Izugarria izan zen hura. Eskerrak hiru ziren, eta elkarren babesa zuten.

Beno, eta etxera, noiz?

Abenduaren 22an. Bilboko aireportura iritsi ginen lehenik. Bidaia gorabeheratsua izan zen, baina pozik geunden. Goizeko ordu bietan heldu ginen Alkizara. Hurrengo egunean lanera joan behar nuen (dio Gorkak)

Eta zer moduz egokitu zineten bizimodu berrira?

Lehen egunak oso gogorak izan ziren. Arazo nagusia hizkuntza zen. Guk ez genien beraiei ezertxo ere ulertzen, eta beraiek guri, imajina dezakezue: tutik ere ez. Bi hilabete eman genituen horrela. Otsailaren amaieran argia ikusten hasi ginen. Elkar ulertzen hasi ginen. Eta egoera guztiz aldatu zen.

Eta orain, zein hizkuntzatan egiten dute?

Euskaraz. Ez gurekin bakarrik, euren artean ere hala egiten dute. Ez dute errusieraz hitz egin nahi, Ez dute kanpokoak direnik nabaritzea nahi, ingurukoak bezalakoak izan nahi dute.

Eta zuek zer deritzozue?

Guri pena ematen digu, Ez dugu euren hizkuntza galtzerik nahi. Errusieraz hitz egingo dien norbait izatea oso interesgarria iruditzen zaigu. Aukera hori aztertzen ari gara.

Eta orain Gorka eta Eli, hitz egin dezagun pixka bat zuei buruz. Zer moduz zuek?

Aldaketa erabatekoa izanda. Lehen patxadaz bizi ginen, orain ezin gara geldirik egon. Dena den, ez gaitu honek guztiak ustekabeen hartu. Bagenekien hau gertatuko zela, eta egia esan, nahi genuen gertatzea. Oso pozik gaude. Dena den, urte batzuetako kontua izango da. Haziko dira, eta lasaiago biziko garen uneak itzuliko dira. Oso gustura gaude.

Zer esaten dizuete ingurukoek?

Nire ahizpek esaten didate: (dio Elik) “Zergatik ez duzue bizitzan normala den zerbait egiten?”. Baina egia esan asko animatu gaituzte. Jendea oso ondo portatu da. Fernandok ere, badakizue, asko laguntzen du.

Zer moduz moldatzen zarete eguneroko bizitzan?

Ondo. Guk egun osoa Donostian ematen dugunez,



Eli eta Gorka Pello-Edouard-ekin

ikastera hara eramaten ditugu. Pello astean bitan nirekin, nire amaren etxera joaten da bazkaltzera (dio Elik).

Eta herrian, zer moduz?

Alkizan oso harrera ona egin digute guztiak, oso atsegina izan da. Herriko hurrekin askotan jolasten dute Pellok, Anderrek eta Kattalinekin. Helduekin ere bai. “Goazen Jesusena” da hemen gehien entzuten den esaldia. Jesus hori, jakina, Elizegikoa da. Urruzola baserrikoekin ere harreman handia dute. Haritz, Eñaut, Ane eta Eider euren lagun handiak dira.

Mila esker, Pello, Ander, Kattalin, Eli, Gorka eta Fernando.

AMIXURI

Alkizako abesbatza elkartea

Alkizako kantuzaleak badugu izena azkenik "AMIXURI" norbaitek ez badaki zer den, esan dezagun gertaera bati ematen zaion izena dela. Eurite handiak direnean bat batean herri aurreko harkaitzetatik hasten den ur jauzia da. Doinua Jose Inaziok bilatu eta letra Imanolek jarri du. Laster Alkizako web orrian ipiniko dugu. Bitartean hona hemen Imanolen bertso eder hauek.

*Txantxangorrien gisan
Alkizan kantari
zuek poztera gatoz
gu gara Amixuri*

*Ernioren azpian
pago ta haritzak
haizeak daramatza
gure doinu-hitzak*

*Amixuri gara gu
kantua ahoan
Alkizan bizi gara
lainoen ondoan*

*Amixurik berez du
ur saltoen hotsa
guk ere hala dugu
beti prest ahotsa*

*Mendiola, Ernio
Allutz, Itzuregi
hau maite degu ta hemen
nahi genuke segi*

Aurten urtebetetzea bete dugu hasi ginenez geroztik eta gogor ari gara kantu berriak prestatu eta gure zenbait kide beste herrietako kantu jiretara joan. Adunakoekin Sagardo-festa ireki genuen eta azkeneko maiatzean Zuberoko Alzurukun izan ginen, Asteasuko kantu zaleak ere konbidatu gintuzten festa eder bat antolatuz. Donostiako Amara zaharreko taldearekin Donibanen Lohitzunen izan ginen beraien hamargarren urteurrena ospatuz.

Gure esker beroenak Betina Aragoni bere kantu heziketarik eta zorionak gaztainak erre eta tortilla patatan txapel-dun atera zen Jose Inazioren.

Ondo pasa nahi baduzue eta kanta zaharrak ikasi, hurbildu; ez zarete damutuko eta euskaldun giroan, Aupa Amixuri! Aupa Alkiza!



San Martin eguna San Martin elizan. Alkiza



Leteko sagardoa dastatzen iñauterietan

RAFA DIEZ ETA JOSEBA EGIBAR, BAKEGINTZAZ

Lorea Agirre

“Herri honetako gatazka politikoari heltzeko prest al gaude denok?”, galdera bota du Joseba Egibarrek, Gipuzkoa Buru Batzarreko buruak, hitzaldiaren amaiera aldera. Bi ordu luze jardun dute hizketan berak eta LAB sindikatuko idazkari nagusi Rafa Diezek kultur etxean. Bertan bildu dira San Isidrotako Kultur Astearen baitan. Biek hala biek dute zer esana politika jardunean, are orain bake prozesua abian dagoela.



Joseba Egibar eta Lorea Agirre

Galderak egin dizkiegu bata bestearen atzetik, eta eurek erantzun, 50 bat lagunen aurrean. Egibarrek egindako galdera horrek barnean dakarren erantzunak argitzen du, nolabait, euskal gatazkaren auzia. Alegia, konponketa izango dela horretarako “borondatea” badago. Rafa Diezek argi du politikari eta eragile guzti-guztiek dakitela konponbidea zein den. “Espainiako gobernuak eta Zapatero berak ondo dakite bakea lortuko bada eta herri honek duen gatazka politikoa gaindituko bada zer egin behar den: herri bat garela, eta horrenbestez gure herriari zein egitura eman nahi diogun erabakitzeke eskubidea dugula aitortu”. Konponbidearen formula gustatzea beste kontu bat da, edota bestelako interesak izatea. Baina bidea markatuko dago.

“ETAk eginikoa bakerantz joateko ekimena da, baina ez da bakea. Bakea herri honen borondatea errespetatzen denean etorriko da”RAFA DIEZ.

“Espainiako Gobernua ez dago ezer oparitzeko, ez ditu gure eskubideak onartuko presiorik gabe” RAFA DIEZ.

Egibarrek ere iritzi bera du. Zer egin behar den bada-kigu eta horretara behartu behar da Espainiako gobernua: Euskal Herria badela aitortzera. “Zapaterok ez dio bere borondatez Espainiaren zati-ketari atea irekiko, trantze horretan jarri egin behar dugu”, dio Egibarrek; eta Diezek, berriz, “Espainiako gobernua ez dago ezer oparitzeko, ez ditu gure eskubideak onartuko presiorik gabe”.


“Zapaterori ez zaizkio aukerak eman behar, emanez gero aprobeztatu egiten baititu. Katalunian gertatutakoa da horren adibide” JOSEBA EGIBAR.

“ETAk egindako ekarpenarekin Lizarratik datorren bidea fase erabakigarrian sartzen da” RAFA DIEZ.

“Sozialistek ere ikusten dute herri galdeketa oso garrantzitsua dela. Izan ere, galdeketa deitzen duzunean, herritar jakin batzuk eta herri bat deitzen dituzu. Eta loteslea izan edo ez, Euskal Herria bera erabaki subjeto egiten du”. Auziaren giltzarria horixe dela uste du Egibarrek. Galdeketa egin aurretik lan handia egin beharko da, hala ere. “Zutabe demokrati-ko batzuk eraiki behar dira aurretik. Erabakiko dena, edozer dela ere, errespetatu egingo dela aurretik lotu behar da”, dio Diezek.

“Su-eten hau indartsuagoa da, estrukturala da, ez dauzka aurrekoak zituen gabeziak” JOSEBA EGIBAR.

Bidea luzea eta nekeza izango dela diote biek hala biek. Egibarrek bi arrisku nabarmendu ditu: bata Zapaterok, ETAk su-etena eman duela-eta, bakea jada lortu dela zabaldu nahi izatea, eta eztabaida poli-tikoa atzeratu nahi izatea: “Hemen anestesista gehie-gi dago, eta herri hau lokarrarazi nahi dute”. Bigarren



arriskua bere alderdian bertan ikusten du, Zapatero Kataluniako eredia gurean aplikatzen saiatuko balitz. Kataluniak Estatutu berri bat idatzi, Madrilen erabat kamustu, eta CIU alderdiarekin negoziatuta aurrera atera. CIUren lekua hemen EAJ alderdiak hartuko luke: “Sozialistak EAJn pitzadura bat non topatuko dabilta amua botatzeko”. Baina, argi du, ez dela txatalak josten ibiltzeko garaia: “Ez da xedapen gehigarrietarako garaia, ez goaz eskumenen inguruan negoziatzera. Hori gatazka konponduko ez lukeen sasi-bidea litzateke”.

“Ahotsak-en manifestua PSOEk, PSEk eta PSNk sinatuko balute, bidearen erdia egina legoke” JOSEBA EGIBAR.

“Zapaterok oso ondo jokatu du Katalunian, baina han ez dute Lizarra-Garazi izan aurretik” RAFA DIEZ.

Espainiako gobernuak ETArekin osatuko duen lehen mahaiak ahalbideratuko du alderdi politikoen artean bigarren bat antolatzea. Horretan ere ados daude. “Gobernua-ETA mahaiak ekarriko du alderdi politikoen mahai eratzea. Eta bigarren mahai horren garapen osoak ekarriko du ETA eta gobernuaren arteko negoziazioa ixtea”. Bi mahaiak paraleloak izan behar dutela pentsatzen du Diezek ere: “Bakea eta gatazka politikoa bereiztea maltzurkeria galanta da. Bake prozesuak osoa izan behar du. Bi eztabaidak aldi berean egin behar dira, eta ez da posible batek abiadura ikaragarria hartzea eta bestea sortu gabe egotea”.

“Zapaterori ez zaizkio aukerak eman behar, eman ez gero aprobeztatu egiten baititu. Katalunian gertatutakoa da horren adibide”

“ETA-Gobernua mahaiak ahalbideratuko du alderdiana, eta honen garapenak itxiko du aurrekoa” JOSEBA EGIBAR.

“Mahai bat, bi, hiru? Ezker abertzaleak oso argi dauka: herri bat gara, gatazka bat dago, negoziazio prozesu bat behar da eta akordio bat lortu behar da. Ikusiko dugu hori nola gauzatu, hitz egingo dugu erritmoez, zatiketa administratiboz...” RAFA DIEZ.

“Sozialistek ere ikusen dute herri galdeketa oso garrantzitsua dela. Izan ere, galdeketara deitzen duzunean, herritar jakin batzuk eta herri bat deitzen dituzu. Herri baten identifikazioaren pisua dauka” JOSEBA EGIBAR.

Herri hau izango da herri honek izan nahi duena. Hori ere badiote, hainbeste politikoaren ahotik behin eta berriz entzun duguna. Hori da iparra Egibar eta



Rafa Diez eta Lorea Agirre

Diezentzat. Hain simple baina hain egiazko. Eta hori hala gerta dadin “uholde demokratiko handi” bat eratu behar dela diote. Guztiok inplikatu beharko dugu prozesuan, eta bultzatu aurrera egin dezan, demokrazia aplikatu dadin. Montenegro dugu autodeterminazio eskubidea aitortu berri zaion azken herrialdea Europan, eta bertakoek independente izatea erabaki dute. Serbiako lehendakariak, Boris Tadic-ek oso garbi erakutsi zuen galdeketa ondoan guztiaren aurretik demokrazia eta herri eskubideak daudela: “Jakina denez, banaketaren kontrakoa naiz. Hala ere aurretik demokrata naiz, herri demokratiko bateko presidentea, eta horregatik guztiz prest nago Montenegroko hauteskunderen erabakia errespetatzeko”. Horra Egibarren galderari erantzuna.

“Zapaterok ez dio bere borondatez Espainiaren zatiketari atea irekiko, trantze horretan jarri behar dugu” JOSEBA EGIBAR.

“Herri hau izango da herri honek nahi duena. Printzipio horri etengabe eutsi behar diogu” RAFA DIEZ.



GAIZKI DAGOENA ZUZENDU

Antonio Sorarrain



Don Ramon
Apaiza

Joan dan urtean," Oilategitik" 5. alean oker erraldoi bat azaldu zan nere idaz-lantxoan. (Ikus "Oilategitik" Alkizako herri aldizkaria 2005, 20. orria).

Onatx argitaratu zana: "Pentsa, aspaldiko asiera artan, gaur Euskal Erkidegoa osatzen duten probintziek 3.400.000 biztanle zituztela: Arabak 900.000, Bizkaiak 1.236.000 eta Gipuzkoak 1.268.000".

Nolaz egin det astakeria au? Zerbaki aukeratu orduko begietako miña jartzen zait. Ezin eraman

det orrenbesteko baldarkeria. Urrutiko urte aietan gure gaurko Euskal Erkidegoan 3.400.000 biztanle? Au da au pellokeria! Plazaratu nuana ilusita, badirudi nere oniritzia ematen diodala nere idatziari. Bai zera! Zuzenketa au egin arte ez naiz lasaitu.

Pepe Aranzabek, Alkizako pesta aurreko egun batean, nere anaia Pedro Manueli nik eskatu aña ale eman zizkion "Oilategitik" izeneko 5. aletik. Bat nere zat gorde eta besteak lagunei banatzen dizkiet. Lagunarteko oitura degu. Bostgarren ale ortarako zerbait idatziko al nuan, galdetu zidan garaiz Pello Joxek eta, baietza eman ondoren, San Isidrotarako bialtzeko berari esan zidan. Alaxe egin nuan. Urteroko gure aldizkaria artu, bostgarren au, alegia, eta nere idaz-lanari begirada bat ematea, aitarene bizi bateko kontua izan zan.

Gaur esango dizkizudanak, onelaxe gertatu ziran. Ara detalletxo batzuk.

Agindu niona idatzi eta Pello Joxe Aranburu jaunari bialdu nion, CD batean kopia tuta; San Isidro egunerako bere eskuetan zuan. Agindua zorra da. Bereala itze gin genduan, esanaz Euskal Erkidegoko populazioaren kopurua gaizki neukala eta, argitaratu aurretik, zuzendu bearra zegoala. Derriorrezko pausoa. Orretan gelditu giñan biok.

Argitaratu bezin laister, telefonoz deitu nion Pello Joxeri jakinaraziz, iñork ez zuala zuzendu nere akatsa.

Erantzuna:" Ire lana bein baño geiagotan irakurri nian,

esan bear nionari esan ere bai, zuzentzeko, baño, diokenez, okerra ez dik iñork zuzendu".

Nik: gaizki zegoenak artan jarraitzen dik, gaizki zegok. Datorren urtean neronek bialiko diat zuzenketa egin eta akatsak kendu ondoren. Ez zaidak aztuko gaur iri esana.

Irakurle, errua nerea da eta iñori ez kulparik eman. Orain urte bete agindu niona betetzera nator. Alkizar bat baño geiago konturatuko zan nere aldrebeskeriaz; ala ere iñork ez dit deitu, nere okerra zuzenduz. Nere apunteetan, andik eta emendik artutako nota aukeratu neuzkan eta dauzkat gai oni buruz.


Euskal Erkidegoko populazioa 1986-07-1ean (Ikus Deia 1990-06-10).

Gizarte 6. Geografia 73. orria. Gero. Euskal Liburuak. Ediciones mensajero Ap.73. Bilbao (1950, 1960, 1970, 1973 Zentsuak). Irarkola: Alvarez Iraola, Bº Igara. San Sebastián 1976.

Zentsua, jakiña danez, amar urtetik bein egiten da Españan.

Síntesis de la Historia del País Vasco. Martín de Ugalde. Ediciones Vascas Argitaletxea 1977, 135..0rr. Interesgarria! Ortxe dator gaurko Euskal Erkidegoak 1560. urtean zuan populazioaren kopurua. Urte illun aietan ez zan artean Erregistro Zibilik, ezta Udalerroldarik ezta Errolda nazionalik ere. Alkizako gaurko San Martin eliza 1348. urtea baño aurregokoa da. (Alkizako kristautasunaren bilakaera eta 1851-1867 urteetako matrikula parrokiara. Pello Joxe Aranburu Ugartemendia. 1998, 7. orria) Gogoan izan Alkizako eliz-liburuak 1610ean asten dirala. Alde ttikia dago 1560tik 1610era. Alkizak garai artan bazuan bere Patronatoa. Alkizako erretorea, benefiziatuak, serorak eta parrokiako karguak aurkeztu eta autatzeko Patronato-sistema onek asko laguntzen digu orduko populazio kopurua gutxigorabera jakiteko (Ikus Alkiza auzo eta hiribilduaren azterketa historikoa (1348-1950. Pello Joxe Aranburu Ugartemendia..2001, 90. orria)

Azkenik, "Oilategitik" gure errebista ortan azaldu zana.



Pena det esandako "OILATEGITIK" urteroko Alkizako erri aldizkarian azaldu zan biztanle kopurua nun irakurri nuan, ez jasotzeagatik. Pena det eta ez ttikia. Jakingarri litzake, baño ez dakit nundik jaso nuan. Aurkitu nai izan det, baño ez det arrastorik. Beste danetan iturria jarrita daukat eta bearrezkoenan, ez. Zer deabru pasa ote zitzaidan!? Kopuru au norbait bide txarretik jartzeko gai izan liteke. Ez dedilla orrelakorik gerta.

Baten batek, Horacio latindar poetari jarraituz, esan lezake: quandoque bonus dormitat Homerus. Homero bera ere noiz beinka lo gelditzen dala, alegia. Ala esaten zuten latinoek baten batek nai gabeko okerrak ere egiten dituala adierazi naiaz. Iñondik ere ez det sekulan ukatu, ez eta siñatuko ere, begibistako egia. Jakiñean, ez beintzat. Nere kontzientziak ez lidake barkatuko, alderantziz. Benetan diotsut. "Opportune et importune" = egoki datorrenean edo ta ez datorrenean egia esan bear da.

"Oilategiko" 5. alea eskuratu, irakurri eta, lotsaz beteta eta miñaren miñez, Euskal Jaurlaritzako Euskal Estatistika erakundea izeneko Sailera deitu nuan telefonoz. Irailaren 12 zan. Entzun zuten nere naia eta momentuan artu nuan eskatu nuana. Gero etxera bidali zidaten POSTA ELEKTRONIKOA eta ERASKIÑA. Ori da lanak azkar eta ondo egitea. Egun ortan bertan amabietarako etxean nuan erantzuna. Eskerrak eman nizkien orduan eta berriro ere ematen dizkiet pozaren pozez gaur

Zer ere eta nere benetako onustea iñork zalantzan jar ez dezan, or dijoakizu Euskal Estatistika Erakundeko erantzunaren ziurtagia, eguna eta ordua dituala. Irakur zuzenketa au. 2001eko erroldakoa dezu. Ori da datu zuzen, egoki eta ofiziala; orrek eze-rezten du nere burruntzali sartzea.

—— Original Message ——

From: maika@eustat.es

To: antoniosorarrain@telefonica.net

Sent: Monday, September 12, 2005 12:01 PM

Subject: Población censo 2001

Hola, en el fichero adjunto te envío la población de los 3 territorios históricos como fuente de información "Censo de Población y Viviendas 2001":

También puedes consultar la población y la tabla anterior en la siguiente dirección:

http://www.eustat.es/elem/ele0000800/tbl0000890_c.html

Un saludo.

Maika Oz.de Urbina
Biblioteca de Eustat

EUSKADI			
TERRITORIOS HISTORICOS			
ARABA/ALAVA	286.387	142.034	94,3
BIZKAIA	1122.637	545.395	506,3
GIPUZKOA	673.563	303.454	340,1


Oarra. Beste nunbaiteko nere eskarmentua gogoan, erderaz eskatu nien eta erderaz biali zidaten.

Gaizki egiafak barkatu eta ondo esanak gogoan artu.

Sondika, 2006-05-15. San Isidro eguna.



Elizako pontia



SANTA KRUZ GERRILARIA ALKIZAN

E. Larrarte Arregi

Euskaldunok garai nahasiak bizi ditugu. Gure arazok ez dira oraingoxeak, ordea. Askok Frankoren garaira begiratzen dute, gaur zer gertatzen den ikasi asmoz, gure arazoak orduan sortuak balira bezala. Baina askoz ere atzerago begiratu beharra dago, bestela ez dugu zipitzik ere ulertuko. XIX. mendea ez zen samurragoa izan gure herriarentzat. 1875-76ko neguan izan ziren gerra karlisten azken ostikadak, baina aurreko berrogei urteak ere ez ziren oso gozok izan.

1876ean, azkenik, hegoaldeko euskaldunak Estatu espainoleko hiritar soilak bihurtu gintuzten —indarra- ren eraginez—, mendeetan izan genituen Fuegoen azken aztarnak kendu zizkigutenean. Euskaldunoi eman diguten ipurdikorik handienetakoa —handiena ez bada— izan zen hura. Fuegoak kentzeak garai hartan nolako zirrara egin ziren euskaldunei eta jendearen samina eta ezintasuna noraino iritsi ziren ezagutu nahi baduzue irakur itzazue Etxegaraik idatzitakoak, Tolosako Gorosabelen Gipuzkoako Historiaren jarraipen gisa. Baina nahikoa dut honetaz. Ez da nire asmoa gerra haietaz idaztea. Garai hartako istoriotxo bat bakarrik kontatu nahi nuke.



Tolosako mikeleteak, hainbatetan Santa Kruz harrapatzen alferrik

Oraindik askok izango duzue Santa Kruzen entzutea. Apaiza eta gerrillaria bigarren karlistadan, euskaldun askok —batez ere baserritarrek—asko maitatu zutena. Badakizue, Hernialdeko bikarioa zela, nola alde egin zuen gerrara Urrutikoetxea baserritik, preso emateko asmotan etorri zitzaizkion mikeleteak tonto aurpegiarekin utziz. Harrezkero bere entzutea eta sona goraka joan zen, nahiz eta gaur egun zeharo ahaztua dagoen.

Esaten nuen bezala, bada Alkiza eta Santa Kruz apaiza lotzen dituen kontutxo bat. El cura Santa Cruz liburutik hartu dut. Ignazio Ariztimuño jesuita tolosarrak idatzi zuen baina argitaratu gabe eta zokoratuta egon zen urteetan. Liburu mardula da, Ariztimuñok Ameriketara Santa Kruzeekin komentuan egin zituen bi urteak aprobetxatuz idatzia. Izan ere, Hernialdeko bikarioa, gerra bukatu zenean, Ameriketara joan zen, jesuita egin, eta misiolari bukatu hango oihan batean indioen artean. Badirudi tolosar honek han eta hemen esan eta idatzi ziren istorio guztiak —Santa Kruz buruz, alegia— bildu zituela, eta berari galdetu zer zen egia eta zer asmatua. Behin baino gehiagotan azaltzen da Alkiza herria liburuan, baina istoriotxo bat bakarrik aldatuko dut hona. Felix Kaperotxipi izan zen Santa Kruzen idazkaria, eta honela dio Alkizan behin gertatutakoaz.

Gau batean Alkizara ailegatu ginen eta bikario-etxea hartu genuen ostatu. Afari legea egin eta, hura sorpresa, hura, ez zaigu, bada, azaltzen neskamea kizaraz eta kopaz betetako bandeja batekin! Nire artean, badiagu kafea eta koñaka eztarria berotzeko. Neskameak atera zigun kopatxo bana bikario jaunari eta niri, eta Santa Kruzek —honek ura besterik ez baitzuen edaten— pattarra erretiratzeko esan zion neskameari.

Bakean oheratu ginen. Oheratu bezain pronto eztulka hasi nintzen eta ez nuen sosegurik hartzen. Ez nion, nonbait, lorik egiten uzten Santa Kruz, eta honek ez dakit zenbat aldiz esan zidan:

— Utz zidak lo egiten, mesedez.

Baina nik eztulka jarraitzen nuen, batzutan ezinbestez, baina baita gogorik gabe ere bestetan. Nazkatuta, halako batean esan zidan:

— Joan hadi hemendik.

Nik horixe entzun nahi! Ohetik salto egin eta sukalderra joan nintzen. Sukaldea bero-bero zegoen, egur eder gori-goriak baitzeuden erretzen surtan. Han zegoen lotan Albistur gure asistentea ere.

Esnatu nuen eta neskamea lo zegoen gelara bidali nuen ia koñak-botila lortzen zuen, ez zurruteroa naitzelako, baizik eztarria lehuntzeko eta eztula biguntzeko on egingo zidalakoan. Altxa zen Albistur eta jantzita zegoen bezala —badaezpada, beti jantzita lo egiten baikenuen— sukaldetik ateratzen ari zela atean bertan, tapa, Santa Kruzekin egiten du topo, nik Albisturri emandako agindua entzunda nonbait.

— Felix —esan zidan Santa Kruzek— goazemak kanpora guardiakoak beren lekutan dauden zihurtatzera eta gero bueltatxo bat emango diagu aurreratuta dauden mutilak ongi dauden ikusteko.

Akabo hain gogoko nuen botila! Eta elurretan —hogeitabat zentimetrokoa bai, gutxienez—, eta aurpegi moztzen zuen haizearen kontra, Kontzejuan zegoen guardia ikuskatu eta gero Billabona aldera, aurreratuta zeuden mutilak ikustera, legoa erdiko paseotxoa eman genuen.

Erretore-etxera itzuli ginenean, sutondoan eseri eta eguna argitu arte hantxe eman genuen gaua.

— Ez diat huts egin —esan zidan Santa Kruzek— paseotxoa ematera behartu hautenean. Konturatu nauk hire ez tul hori ez zela zintzoa. Horregatik jarraitu diat sukalderraino. Ondo baino hobeto dakik nola gorrotatzen ditudan egarririk gabe edaten dutenak eta lerdea dariela emakumeen gona atzetik dabilzanak. Asko maite haut, horregatik ez dit bakean uzten. Kontuz ibil hadi, eta ez zaik damutuko.

Eta honela bukatzen du pasadizo hau Kaperotxipik: egia da, ez zituen gogoko ez zurruteroak, ez eta erraz maitemintzen direnak. Askotan esan zuen, soldadu ona izateko oztoporik handienak bi hauek zirela.

Honekin bukatu behar nuen, baina... gauza guztietatik zerbait ikasi behar omen da eta... Orixek karlistadetaz ikasi zuena paperean jarriko dut, honek ere idatzi baitzuen liburu polit bat Santa Kruz gai hartuta. Liburuaren bukaeran, elkarrizketa bat asmatzen du Euskaldunaren eta Heuskal Herriaren artean, eta, laburbilduz, honelako gauzak esaten ditu:

Euskalduna. – Askok esaten dizugu maite zaitugula, eta zure izena ahotan darabilgu.

Euskal Herria. –Bihotzean baino gehiago, seme. Betiko leloa da hau.

Euskalduna. – Zer diozu karlistetaz?

Euskal Herria. –Horiei zor diozue gaurko euskaldunak

euskaldun-legeen ezaguera eta maitasuna. Gure herrian itzalirik zegoen aspaldi Fuegoenganako sua. Gizaldietan eta gizaldietan erregeek ez zuten zin-hitzik ematen Don Carlos etorri arte. Honek ere, errege izateko euskaldunetaz baliatu nahi eta agindu zizkigun: euskaldunak erregeaz baliatu nahi Furoei eusteko, eta biek musu-huts gelditu.

Euskalduna. – Zer gaitz, zer makar dugu gaurko euskaldunek?

Euskal Herria. – Sabela duzue etsairik handiena. Aberastu zineten, askorekin ohitu, eta orain asko behar.

Euskalduna. – Sabelak, jan-edanak hondatu gaitu, bai. Urrena?

Euskal Herria. – Urrena, auskara bazterreratzeak.



Santa Kruz, zahartzaroan

BERTSOTAN

Txomin Garmendia (1984)

Aurtengo aldizkarian bertsoekin atal berri bat osatzea pentsatu dugu. Bertsoak Alkizan botatakoak edo Alkizarekin, jakina, zerikusia dutenak izan daitezten saiatuko gara. Ale honetan Txomin Garmendia bertsolari ezagunak 1984an gure herriari jarritako bertso batzuk ditugu. Koldo Jauregik bilduak eta guri helarazitakoak dira. Neurria zortziko handia da.

ALKIZA

Erri Txiki hau ortxe daukagu
Ernioren magalean
baserri etxe bikain askoak
dituala egalean.
Aste guztian asperturikan
bizi diranak kalean,
Jai egunetan indartzen dira
Alkizaren sabelean

Iraillaren zortzian degu
Ama Birjiñan jaiotza
urteko jairik nagusienak
Alkiza'tarraren poza.
Nunai badute soñu ta dantza
bertso ta irrintzi otsa.
Gaixorik dago, egun oietan,
alaitzen ez dan biotza.

Eliz ederra bertan daukagu
apaiz etxea're berdin.
Ostatu, frontoi, nai dan guztia
iñor aspertu ez dedin.
Belardi eta baso bikañak
aukeran Ernio mendin.
Negu luzea izaten da ta
udaran altxorra egin



Txomin Garmendia



Alkiza, bertso hauek egin ziren urtean

ARANZABE, ALKIZAKO PILOTARIA

Elixabete Elizondo

Albiztegiko Luis Marirekin aritu gara bere pilota bizitzaz pixka bat gehiago jakin nahian. Nahiz eta herrian afizioa betidanik egon, ez da aspaldi hontan bera bezelako figurarik atera, ez da egon eliteko kirolaririk, alegia. Bere profesional garaian puntakoekin jokatu zuen: Lajos, Pierola, Maiz, Bergara, Garzia Ariño, etab.

Herrian hasi zen. Garai hartan pilotan asko ibiltzen ziren eta berak hamalau urte zituela lehenengo aldiz txapelketa bat antolatu zen. Erraz irabazi omen zuen eta hurrengo urtean, hamabost urtekin, berriz ere jokatu eta irabazi zuen. Orduan jubenilak edo seniorrak besterik ez zeuden; ez orain bezala, kadeteak, infantilak, etab.

Gero txapelketak Tolosa aldean egiten ziren eta han aritu zen Etxabeko Ramonekin, baina azkenean trofeo hau galdu zuten Amezketako Altuna eta Labaienen kontra.



Argoterekin

Garai hartan pilotari izandako aiton napar batek ikusi zuen eta baita ere eraman Juanxo Orejarekin (Oreja III) jolastera. Honekin osatutako bikotearekin jubeniletako txapelketa ia guztiak irabazi zituen. Hemezortzi urte zituela, hau da, 1967an, Tolosako klubak

Gipuzkoako finala jokatzera bi atzelari bidali zituen: bera eta Gabellanes. Luis Marik aurrelari gisa jokatu zuen, baina finala galdu zuten Azkoitiko Beristain eta Oteizaren kontra.

Afizionatuetara pasa eta han ere makina bat partidu jokatu zuen, baina beretzako orotzapen onenak edo partidurik onenetakoak Donostiako Torneo Federaciones-ean "Gipuzkoa Bizkaiaren kontra" jokatutakoak izan dira. Garzia Ariño IV – Gorostiza, Idiakez – Aranzaberen kontra 22-20 galdu zuten eta

buelta Sestaon izan zen, 22-17 irabazi zutela. Aranzabek partidu hau beste aurrelari batekin jokatu zuen, Saizar. Gorostiza hau figura izan zen gero ere, baina laister bajatu zen bere indarra.

Bere debut profesionala Tolosan izan zen 1973ko Martxoak 5ean. Egun handi hartan Galartza I – Saizar, Ezkurra – Aranzaberen kontra aritu ziren, partidua 7 – 18 irabaziz. Ezkurra hau Koteto Ezkurra remontistaren aita zen eta bizitzaren bueltak Ezkurrak despedida partidua Aranzabe berarekin jokatu izango zuen urte batzuk geroago.



Etxabeko Ramonekin

Hamalau urte aritu zen profesional mailan Aranzabe pilotaria eta berak dio ordungo orotzapen asko eta oso onak dituela, pilota munduan ezagututako lagunak betirako dituela. Garai hartako pilotari famatuenean, hau da, lehenengo mailako figurekin tokatu izan zitzaion jokatzera bikote edo aurkari bezala hainbat partidu estelarretan: Lajos, Pierola, Txikuri Zaharra, etab.; eta hau ilusioz betetako gazte bat zarenen esperientzia liluragarria da. Berak ezagutu duen pilotari handiena Ogeta dela esan digu, artista hutsa omen zen.

Gelditzen zaion pena bakarra da orduan ez zirela gaur egun bezala preparatzen. Aranzabek baserrian segi nahi zuen eta baserriko lan batzuk ez omen dira aproposenak besoetako indarra gogortzeko. Bere preparazioa pixka bat korritzea eta Alkizako frontoian bakarrik jo eta ke aritzea zela aitortu digu. Noizean behin, lehenengo alkate Antonio zenak harrika egiten zion entrenatzen laguntzeko. Gaur egungoek bezala zainduz gero, berak uste du askoz ere gorago iritsi ahal izango zela bere mailan. Hala ere, harro dago eta arrazoiarekin bere profesional bide luzean atzela-

ri zuhurra izan zelako eta berea delako dudarik gabe Beotibarren partidu gehien jokaturako pilotariaren errekorra: 347 partidu gutxienez. Gainera, erretiratu zen egunean, Tolosako kantxistak egion zion opari ederrari esker, badu jokatu zituen partidu guztien zerrenda, haietan parte hartutako pilotari eta tanteo guztien oroimena.

Beste momentu onak ere egon ziren, adibidez, kontrabanduzko partiduetan, hau da, enpresatik kanpo jokaturako partiduak. Besteak beste, Artikutzako San Agustinetan jokaturako Bergara I – Lazkano, Bengoetxea – Aranzabe. Baita Seaska Iparraldeko ikastolen alde Pierolarekin jokaturako partiduak eta han ezagututako jendea.

Bere profesional bizitzaren hasiera eta debuta Empresas Unidas-ekin egin zuen. Hango enpresarioak ziren Dublang donostiarra, Bidarte eibartarra eta Ugarte bergararra, eta nahiz eta bere datu guztiak hauei eman, sei hilabetez kontratua sinatu gabe jokatu zuen. Orduan Fraile Riojanoak eta Soroak Eskulari enpresa berria sortu zuten, eta Soroak kontratua firmatu gabe zuela eta gehiago pagatuko ziotela esanez, haiekin fitxatzeko konbentzitu zuen. Horrez geroztik, Eskulari enpresarekin jokatu zuen hamalau urtez.



Luis Mari Aranzabe

Hiru urte errenkan, partidu gehien jokaturako pilotariaren sialkapenean laugarren geratu zen: Maiz II (107 partidu), Bergara II (105), Pierola (100) eta Aranzabe (97). Beotibarreko ikusleek beti ondo tratatu izan dute, zuhurra zelako eta irabazitako partiduen portzentaia altua zuelako. Horregatik apostulariek pozik zeuden eta konfiantza zioten. Garai hartan diru asko mugitzen zen Tolosako frontoian, baina Aranzabek dio diru gehiago mugitzen zuen frontoia askogatik Logroñokoa zela.

1987ko Ekainak 24ean erretiratu zen eta azkeneko partidua Odriozola – Aranzabe, Zarandona – Garaitaren kontra izan zen. Pilotari bezala bizitza aberats hau bizi eta gero pena bat dauka: bere atze-

tik, Alkizatik inor ez dela bere mailara iritsi. Eñaut Sorarrainek eta Igor, Aranzaberen semeak, bide ona zeramaten, baina gaur egun oso zaila da bakarrik zure balioaren bidez goraino iristea, badirudi zer edo zer gehiago behar dela klubaren interesen gainetik.



Erretiratu zenean Antonio Zubiaurreekin

aurrera ateratzeko.

Igorrek, bere aitaren laguntza guztia jaso arren, aurkitu dituen zailtasun guztiengatik etsita dago. Honek Arretxeren semearen kontra lau t'erdian jokatu eta irabazi egin zuen, aitari ilusio handia egin ziolarik bere garaietan Arretxekin jolastu eta gero bere semea harenaren kontra jokatzen ikusteak.

Aranzabek dionez, egungo pilotari indartsuena Martínez de Irujo da; gauza harrigarriak, sekula lehenago egin gabekoak, egiten baititu. Luis Mari berak Martínez de Irujoren osabaren kontra jokatuta dagoe-la esan digu eta hura ere halako indartsu eta gogorra zela. Haren kontra jokatu eta barru guztia hustu eta gero jateko gauza ere ez zela gelditu omen zen. Horrelakoa behar du benetako kirolariak: eman behar duen momentuan dituen guztiak ematen duena. Horrelakoxea zen, hain zuzen, Aranzabe, Alkizako pilotaria.

ERNIOTIK EGURRA AIREZ JEISTEN ZENEOA

Jose Inazio Gabirondo & Bittor Sorraín

Ernioko basoetatik egurra jaisteko eraiki zen Egur Kableak historia laburra izan zuen, baina eragina, aldiz, izugarria inguruko herri eta herritarrengan. 1945etik 1950era egur tona ugari moztu, trontzatu eta garraitu ziren Ernioko basoetatik Asteasuako Konporta baserri aurreko zerrategira, han zerratu, txikitu eta saltzeko.

Gerra zibilaren ondorengo garaia zen. Gosea gauza zabaldua zen, eta janari rasionamendua ere indarrean zegoen. Ogi zuria preziatua izan zen leku guztietan, batez ere kaletarren artean. Anartean, okindegiek ez zuten labe elektrikorik izaten, eta su-egurrez erretzen zuten ogia. Abagune hartaz baliatu ziren Egur Kablea abian jarri, eta su egurra erruz saltzeko.

Jazinto Irazu asteasuarra izan zen kablea martxan jarri zuenetako bat. Hiru sozio ziren, bera, Joxe Kalixa eta Pello Errota. Jazintok ez ditu ahaztekoak garai haiek, eta atzo gertatua balitz, gogoratzen ditu 90 urte beteko talaiatik kasik 60 urte lehenago gertatutakoak.

Arotza zinen zu?

Zerra geneukan guk, egurra Donostira lenagore bialtzen nun.

Non zenun zerra hori?

Kalian, Iturrin eskubita, estankuan parian eta hurrengo itxian. Gerra europoan (1918koa) gure aitak zerra zun. Kriston negozioa omen zala eta, Aizpuruak gure aita sozio sartu nahi, aitak nahiz eta, ordun indarra moztu.

Mateo Aranburu, Urruzola, baserrikoa ere ibili zen kablean lanean. Nola ezagutu zenuen?

Mateokin lendik ere banun amastada. Mateok berak esan zidan, interesatzen zaizu? Hala ta hala egin behar ta. Ibili nintzan... Joxe Kalixa, Pello Errota eta ni. Joxe kalixa langile ona zan, zintzua eta dana, baina babik etzun jaten. Ordun, Ernioa etortzen giñan aste batian ni eta bestian Pello Errota, ta klaro, Pello Errotak etzekin zerra zorrozten. Nik jartzen nittun beti trontza morda bat zorrozuta.

Trontzakin ebakitzen zenuten?

Bai. Hemen dana trontzakin egiten zan, dana trontza zan. Etxarri Aranazkoak bazian zortzi mutil eo, zezena bezalakoak, geo bi zarauztar etorri zian... Baba bakarria izaten zan aste guztiako. Baba bakarria jaten nun aste guztin. Etxetik ekartzen nun bokadila bat ona, baino beti

izaten zan baten bat gaixo eta hari eman, eta batez.

Egur Kablean langile mota askok hartu zuen parte: lehenengo kablea bera muntatzen, eta gero kablearekin lanean. Diru iturri ona izan zen jende askorentzat: nagusi entzatzat, basoa saldu zutenentzat, kablea muntatu zutenentzat, baso-mutilentzat, itzaintentzat, errementarientzat, taxilari eta beste



Jazinto Irazu

garraiolarientzat, tabernarientzat... eta bestelako lanak egiten zituztenentzat. Ataungo hiru kablelarik muntatu zuten. Tartean, Alkizako laguntzaile asko izan ziren, jakina. Hona horietako batzuen berri: Urruzola-ko Mateo Aranburu itzain aritu zen, Maitegiko Modesto Gorostidi bezalaxe. Madrigal baserriko Patxi Arregi errementari lanetan, Angunberri-ko Alejandro Urretabizkaia kable muntaketan, Katalandegi-ko Santiago Gabilondo arotz; Etxabe-ko Rufino Iruretagoiena, Maitegi-ko Modesto Gorostidi, Iribiti-ko Agustin Legarra, Beandoain-go Isidro Iguaran, Etxabe Txiki-ko Migel Aierbe eta Aitzetagai-ko Daniel Otaegi Illardegi basoan jardun zuten egurra botatzen eta Arantzabene-ko Frantzisko Tapia Txapiolako basoan.


Zenbat langile aritu zineten Konportan?

Konportan gu hiru eta Sargazteiko mutil bat.

Egurra Konporta baserriaren aurrean pilotzen zen, han zegoen Jazinto eta bere sozioen zerrategia. Konporta aurre hura zen, Asteasu, Alkiza eta Zizurkil batzen zituen erdigunea. Zerratu edo ebaki, eta gero handik bertatik banatzen zen behar zen tokira kamioez-edo.

Arrantxeroa edukitzen omen zenuten?

Bai, zeakua, Alkizakua. Eliza onduan pixka bat beaxogo, Eldu, eo... Mutil gazte bat, harek preparatzen zun baba,



eguerdikoa eta gauekoa. Izena ez zaait goatu... Harek kozina; etzun lanik egiten. Kozina bai, baba ondo jartzen zun.

Ogia ta nola ematen zan? Oinez?

Ogia kablian, Villabonatik, Arregitik. Eunero zakun sartu eta kablian. Nola eunero martxan zeon. Baba tren txikin ekartzen genuen. Kablian igotzen genun. Baba haundia. Baba txikia zertzen ez genekin guk. Ganau-baba, ordia...

Baina gosaltzeko zer izaten zen? Ogia ardoarekin edo, inoiz komentatu izan duzu.

Gosai txikia hua izaten huan: zatotikan ogiai zarra-zarra botata. Geo, beztik aldian eo, lan piska bat egindakuan, orduako goizian preparatzen zien aurrenengo baba, geo eguerdin eta gauean e baba. Baba ona e!, baba jan ein bihar e!

Kableak baldintza bakarra du, bota behar den tokia iritsi behar duena baino altuago egotea. Modu horretaz erraz garraia zitezkeen enborrak goi basoetatik behera. Bi kable fijo izaten ziren, batak bestea mogi arazten zuela. Eta konportan, iritsiera lekuan, balazta egoten zen. Balaztak berebiziko garrantzia izaten zuen istripurik ez gertatzeko. Enborrak Konportara iritsi eta pipatetik askatzen ziren.

Beian lau luziak, eta goian bi (enborrak). Katiakin lotzen zizkien ta etzan kargik erortzen. Goian irikin ibiltzen ginen. Bi iri pare: bat geona eta bestea Alkizakua, elizatik bexareagokoana (Maitegi baserriko Modesto Gorostidirena). Kargak ondo zebiltzala ondo, baino, kargak egiten zian batzutan desberdindu. Orduan kabliak etzun funtzionatzen. Iria ere hantxe izorratu zitzaigun guri, iri bat.

Kargak berdintzeko idiekin tiraka zebiltzala, kablea martxan jarri, Jazintok frenatu ez, eta idi beltza hiltegera eramane behar izan zuten.

Kablea muntatzen ataundarrak ibili ziren. Izan ere Ataunen goi baso eta belardietatik belarra, egurra, garoa eta zernahi jaisteko aspaldi erabiltzen zuten kablea. 1920. urtearen bueltan jarri zen martxan lehengo, eta 197 kable egotera iritsi zen. Horietatik, gaur egun, 17 oraindik erabili egiten dira. Ataunen bezala, aldapak latzak, eta bide ezerrik ez garraioak aranera jaisteko. Bixente Eskisabel ataundarrari erosi zioten Jazintok-eta bigarren kablea: "Kablista amorratua, atorante samarra zen. Geo azidentean hil zan".

Istripu larri bat ere izan zen Egur Kablearekin. Jazintok gogoan du Adunako Joxe Etxarriren heriotza. Eztanda gertatuta hil zen. Adunako etxera eraman zuten gorpu. Seguruaren aurrean, berriz, dinamitaren tiroz hil zela ezkutatu, eta enborrak azpian harrapatu zuela aitortu omen zuten.

Kableak iraun zuen bost urteetan lan gogotik egin zen. Hala ere, jaietan ez zuen inork lanik egiten. Jaxinto larunbatean etxera joaten zen. Basomutil nafarrak, berriz, bertan geratzen ziren, igandean Alkizara jaisteko. Baina, batzuetan basoan geratzen ziren. Ogia oliotan tostatu eta arrantxoak egiten zituzten. Lo, berriz, txaboletan, txillarraren gainean etzanda.

Ernioko basotik ia 4.500 tona egur jaitsi ziren, bereziki su-egurra zen, eta horrek emam zuen irabazia. Horiek txikitu, traskiatu eta banatu egin ziren Konportako zerrategitik. Zehatzago esanda 4.433 tona saldu ziren, eta salmenta hark 1.044.181 pezeta eman zituen; beste bi salmenta motek, ordea, 171 metro kubiko tabloi eta 19 zuhaitzek, 99.659 pezeta besterik ez.

Donostia berrehun tonetatik gora ematen ginun. Donostia Beantxiok ia eunero kargatzen zuen bee zea.

Noa?

Panaderita.

Panaderi batea?

Ez panaderi askota.

Materialetako ere izango zen, ba?

Ez, materialetako oso kaskarra zen. Apartatzen genun puska bat. Geo zerran pasa ere bai. Tabloi haiek Araobalazak Zarautzen jugetiak egiteko zituen parienten fabrikara saltzen zitun. Merkeago, baina hara.

Ernion bazen pago mehe, lerden eta adarbegirik gabekoa. Hango pago-gerriak Legorretatik gora eramaten zituzten kirtanak egiteko. Baina gehien-gehiena okindegitarako zen. Donostia eta inguruetara saltzen zen su-egur kopuru handiaren adierazgarri dira hurrengo zenbaki hauek: Hernaniko Jaime Puigen okindegira 1.149.035 kilo egur eraman zen, eta hark 150.386 pezeta ordaindu zituen. Donostiako hogeitau bat okindegira milaka kilo saldu ziren.

Anartean, Alkizan, errepide bakarra zegoen, Azaldegikoa eta Aranako egiteko zeudelako, eta airezko garraio-sistemak basogintza pribatuari inoiz eman ez dion irtenbidea eman zion Egur Kableak.

MAISU ETXETIK GIZARTE ZENTRORA

Udalaren txokoa

Herriaren historian garrantzi bereziko den “Juanenea Etxea” zaharkituta aurkitzen da. Garai batean Eskolako Maisuen etxe izandako eraikina birgaitu eta bertan Gizarte Zentru bat ipintzeko asmoa du Udalak, herritarrek jarduera ezberdinak aurrera eramateko egun duten leku gabeziari erantzuna emateko asmoz.

Birgaitutako eraikinak irisgarritasun arau guztiak beteko ditu, igogailu eta guzti edukiko duelarik. Goiko solarian bi pisu tutelatu ipiniko dira, gizarte ongizate zerbitzuen bitartez erabiliko direnak. Erdiko solairuan jarduera ezberdinak aurrera eramateko bilkura gela bat, egon gela bat eta sukalde txiki bat egongo dira, herritarren zerbitzura jarriko direnak eta beheko solairuan mediku kontsulta eta erabilera balioanitzerako gela bat kokatuko dira.

Gizarte Langilearen bulegorako ere dagokion tokia aurreikusitua da.

Gizarte Zentruaren xedea herritarrak biltzea izango da, hau da, herriko talde ezberdinek eremu kulturalen edo bestelakoetan garatu nahi dituzten ekintzetarako bilkura tokia izatea. Hirugarren adinari, gazteei, emakumeei eta orohar herritarrei zuzenduriko aisialdi programa ezberdinak martxan ipintzeko aukera emango duen zentru bat sortu nahi da.

Birgaitze obra exekutatzen ari den dagokionez, Udalak finantziaketa lortzearen menpe aurkitzen da. Gizarte Zentrua martxan jartzeko aurreikusitako kosteak ondorengoak dira eta Udalak % 50eko kanpo finantziaketa eskuratu ezean zaila gertatuko da proiektua gauzatu ahal izatea:

Proiektuak eta Obra Zuzendaritza: 38.962,08 euro.
Obraren Exekuzioa: 370.554,54 euro.

Altzariak eta funtzionamenduan ipintzea.
40.000,00 euro.



Donjuanena

Gaurko egunean Donostia Gipuzkoa KUTXAK bakarrik onetsi du dirulaguntza ematea, 50.000 eurotako hain zuzen ere. Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta Osakidetza dirulaguntza eskaerak zuzendu zaizkie eta erantzuna jasotzeaz dago Udala.

TOPONIMIA III, ARANA BAILARA LEIENDA

BASERRIAK

(250) Berandoain, (251) Igaranzabal, (252) Altxorbe, (253) Lortxinaga, (254) Intxaurrandiaga, (255) Garaikoetexa, (256) Antzieta, (257) Albiztegi, (258) Arritzaga, (259) Kukutegi, (260) Agerre, (261) Zumitza, (262) Basazabal, (263) Zumitzeta eta (264) Errekalde.

LEKU-IZENAK


(275) Arratetxipi/ Arratetxikieta
(276) Argorri
(277) Aitzorrotx
(278) Sansonarri
(279) Malleta
(280) Basarte (baserri ohia)
(281) Itturralde
(282) Urbietta
(283) Zentrala
(284) Elizondo
(285) Askantxo (iturria)
(286) Illunberreka
(287) Zopite
(288) Zopiteko zuloa
(289) Beleburu
(290) Amixuri (Iturburua)
(291) Susterreka
(292) Bidanierreka
(293) Ursaltoa
(294) Xiarre
(295) Urteâ
(296) Atxutei/Atxutain (mendia)
(297) Atxuteigaña
(298) Aizluzegañeko borda
(299) Allusko borda
(300) Suspaitzâ
(301) Aizluzze (haitza)
(302) Aizluzegaña
(303) Alluts (haitza)
(304) Goikosuspaitzâ
(305) Bêkosuspaitzâ
(306) Lertxungo zelaiak
(307) Âkun (Abarakun)
(308) Allumeri
(309) Elordegi

(310) Aitzurrupe
(311) Perubarruti
(312) Kosketa
(313) Berrain
(314) Berraingo borda
(315) Lortxinâzpi
(316) Lortxinâgaina/Lortxinburu
(317) Solaita
(318) Urkiri
(319) Goikosoro
(320) Bentzalako borda
(321) Pâzelai
(322) Pâzelaiko borda
(323) Txulon-berri
(324) Azkonartokieta
(325) Zuarerreka
(326) Alkatejauregieta
(327) Basajaundegi
(328) Gainerreka
(329) Elketa
(330) Oâzurigaina
(331) Oâzuri
(332) Oteizar
(333) Askâgaina
(334) Askâ/Askârreka
(335) Askâzpia
(336) Arkaizgaña
(337) Arkaizpia
(338) Lupatz
(339) Lupazgaña
(340) Legorgaña
(341) Errekaleor
(342) Bideberrieta
(343) Bidemakota
(344) Alkizabidea
(345) Nekasoro

HERRI MUGARRIAK

(265) Ameztietta, (266) Atameaga, (267) Urteaga, (268) Abaro, (269) Olarain, (270) Intsusadi, (271) Berrelus, (272) Osinbelzaga, (273) Antsu eta (274) Maratulus

(346) Ipintza
(34) Ipintzarreka
(348) Engeta
(349) Ôtari
(350) Urkia
(351) Arritzaberri (etxea)
(352) Xitoki-botana
(353) Antsutxikia
(354) Antsuaundia
(355) Angararreka
(356) Zumitzaberri (etxea)
(357) Portuzar
(358) Zumitzetako borda
(359) Soroluze
(360) Lanberri
(361) Mendiolazpi (etxea)
(362) Muñozabal (etxea)
(363) Sustrai (etxea)
(364) Urkullu (baserri ohia)
(365) Sâstizelai
(366) Etxazpi
(367) Aberatsalde
(368) Kâbiondo
(369) Soraluze
(370) Sorolepo
(371) Sâstiaundi
(372) Pâbe
(373) Abeletxe
(374) Aizporro
(375) Bordalde
(376) Itturralde
(377) Aberealde
(378) Sâstizar
(379) Beleburupe (etxea)
(380) Igaran errota
(381) Zentrâldia




TOPONIMIA III,



ARANA ALDEA





TOPONIMIA III, ARANA ALDEA

Pello Joxe Aranburu

Aurten, aurreko bi urteetako lanari jarraipena emanez, Oilategitik aldizkariko erdigunea eta saioa toponimiaren gainean, Arana aldeari eskaini diogu.. Lehen-lehenik, iazko saioaren osaketa batzuk egin nahi ditugu. Zopite ondoan, iaz bi leku-izen ahaztu zitzaizkigun: Sandrata eta Ernioko Kableak eramandako basoak Illardegi zuten izena. Bestalde, Erniozabalen Olarreta ipini gabe utzi genuen. Osaketa hori egin ondoren, Arana bailarari ekingo diogu.

Aurtengo leku-izenak bi eremu oso ezberdinetan kokatu ditugu: bata, baserri eta zenbait eraikuntza berriz osaturiko Arana bailara eta, bestea, Erniozabalen iparraldea, Hernialde eta Anoeta bi herriekin mugan dauden hainbat belaze edota baso. Bi eremuak oso aberatsak dira toponimian. Merezi izan du, aurreko urteetako lekukoez gainera, aurten Albiztegiko Luis Mari, Basatxabalgo Pantaleon, Bengoetxeko Angel eta Intxaurrendiagako Tomasen ahoetatik lekukotza jaso izanak. Ahozko erabilerari lehentasuna eman diogu.

Anoetatik Antsun gora Errekalde baserritik ikusten diren ibarreko harrizko baserri dotoreak eta Erniopeko zuhaizti eta harkaiztien toponimia joria begi-bistan dugu ale honetan. Lagungarri bikaina suertatu zaigu Imanol Goikotxeak aurten eskaini digun Alkizako mapa ere.

Aurtengo toponimia hiru multzotan banatu dugu: baserriak, herri mugarri izenak eta leku-izenak. Hamabost baserri izen zehatzei mapan tratamendu berezia eman diegu. Tolosa, Hernialde eta Anoetako beste hamar herri mugarri banan-banan izendatu eta kokatu ditugu. Azkenik, besteak beste, Arana aldeko 106 leku-izen erabiltzen dira eguneroko eginkizunetan aipatu lekuko arabera. Baserritarraren hizkuntza zehatza da

bere sailak eta jabetzak adieraztean. Alor bakoitzak du bere izena eta sarritan familietan erabilia.

Leku-izenen artean lau errealitate azpimarratu nahi ditugu. Arana bailaran eraikuntza berriak agertu dira, hots, etxe berriak: Arritzâberri, Urkullu, Sustrai, Muñozabal, Mendiolazpi. . . Bestalde, bailararen ospela iturri eta erreketan aberatsa da: Illunbe, Askantxo, Amisuri, Susterreka, Bidanierreka, Aska, Errekaleor. Gainera, bailarak ospeleko mendi, mendixka eta haitzek eragin handia dute toponimian, esaterako, Zopite, Belakun, Aizluze, Alluts, Atxutegi eta Oâzuri mendi eta haitzak. Azkenik, mendi, baso eta baserri ondoan, borda anitz zutik diraute bere izen eta guzti. Borda-izen batzuk adierazi ditugu, ez denak.

OIER GOIKOTXEAREN AMARI ELKARRIZKETA

Eskolako L.H.ko ikasleak

2006-07 ikasturtean eskolatuko zaigun Oier Goikoetxearen amari egin diogu entrebista txiki hau, beraz, hemen izango duzue Alkizar ama berri baten gure eskolari buruzko iritzia:



Bi urteko zortzi ume berrien arteko Oier Goikoetxea

Zein da zure lana, Ainara?

Ni Ibarrako farmazeutika naiz.

Nolatan etorri zineten Alkizara bizitzera?

Etxeak eraiki zituztenean hona etorri ginen bizitzera, nire senarra Anoetarra da eta betidanik ezagutu baitu Alkiza.

Pozik al zaude zure haurra Alkizako eskolara etorriko delako?

Bai pozik nago eskola etxetik gertu dagoelako.

Zer gustatuko litzaizuke haurrari erakustea eskolan?

Txintxoia izaten, lagunekin ondo eramaten eta jendearekin sinpatikoa izaten.

Eskola txikia gara, zein abantaila dituela iruditzen zaizu?

Lagunekin eta maisuekin tratu gehiago dagoela, harremanak gertuagokoak dira.

Adin desberdineko haurrak gela berdinean egoten dira, zer iruditzen zaizu?

Nire ustez oso ondo dago handiak txikiari gauzak erakusten dizkiolako.

Uste al duzu zure haurra ondo konponduko dela besteekin?

Bai, halaxe uste dut.

Zergatik?

Alaia delako, txintxoia delako eta batez ere oraingoz ez duelako problemarik izan.

Nolakoa da zure semea: bihurria ala lasaia?

Bihurria da, batez ere oso mugitua.

Otsamendin bazkaltzen uztekotan al zaude?

Ez oraingoz ez, arratsaldetan bakarrik egiten dut lan eta.

Zer nahiko zenuke izatea zure semea handitan?

Berak nahi duena.

Gustatuko al litzaizuke zure semea ere zure lan berbera egitea?

Bai, baina berak nahi badu.

AMAIARI ELKARRIZKETA

Eskolako L.H.ko ikasleak

Aurten, 2006ean, Garmendiko neskatoa, Amaia Olarra, Lehen Hezkuntzako ikasketak bukatu eta Bigarren Hezkuntza egitera joango da Billabonan dagoen Erniobe ikastetxera. Alkizako herri eskolan pasatako urteen bizipena eta aurrean duenaren inguruan berak duen iritzia jakiteko elkarrizketa egin diogu.



Amaia, neskatila dotorea
Orion

Pena ematen al dizu herriko eskola uzteak?

Ez, egia esan, ez dit pena handirik ematen.

Eskola honetan ondo pasa al duzu?

Bai, oso ondo pasa dut lagunekin eta baita ere irakasleekin

Eskola honetan jarraitzea nahiko al zenuke?

Alde batetik bai, baina bestetik ez.

Zergatik?

Bai, hangoa zailagoa delako eta hemen baino lagun gutxiago daukadalako eta ez, ikasten jarraitu behar dudalako

eta lagun berriak egingo ditudalako.

Arratzainera joango den beste baten bat ezagutzen al duzu dagoeneko?

Bai, Zizurkilgo hiru neska eta Adunako beste bi mutil eta neska bat.

Uste al duzu lagun asko egingo dituzula han?

Ba espero dut baietz, baina ez dakit oraindik.

Nola iruditzen zaizu egin ditzakezula lagun horiek?

Beraiekin ondo portatuz eta beraiei lagunduz ahal dudan guztian.

Pasa al zaizu xelebrekeriarik Alkizako eskolan?

Ba behin hemen plazan galdutako zakur bat azaldu zen eta eskolako umeak zaindu genuen. Martinen etxetik zakur jana ekartzen genuen eta ura ematen genion. Azkenean Gerezik bere etxera eraman zuen. Guk Begi Beltz izena jarri genion, begi bat beltza zue-

lako, baina Gereziren etxean beste izen bat jarri zioten, eta oraindik han jarraitzen du. Orain dela gutxi Koldobikaren eskultura ikustera joan ginen eta han ikusi nuen.

Beldurrik ba al diozu institutoari?

Oraingoz ez, pixka bat falta da eta geroago izango dudan ez dakit oraindik.

Zer nahiko zenuke izan handitan?

Ez dut pentsatu, baina denbora badudala pentsatzen dut, oraindik txikia naiz eta.

Zer iruditzen zaizu hain goiz jaiki beharra?

Agoantatu egin behar, kostako zaidala baina jaiki egin beharra dago eta kito.

Hango jana ona izango dela uste al duzu?

Esaten dute txarra dela, baina ezin da esan, nik ez dut oraindik probatu.

Zein da zure arlorik gustukoena?

Soinketa

Zergatik?

Kirola egin behar delako eta kirola egitea gustatzen zait.

Eta gutxien gustatzen zaizuna?

Ingelesa

Zergatik?

Beste hizkuntza bat da eta zaila egiten zait.



Amaia ume kozkorra zenean, ahuntza lagunarekin

ORIOKO IRTEERA

Eskolako L.H.ko ikasleak

Maiatzaren 2 eta 3an Orioko Txurruka aterpera joan ginen. Aurreneko egunean iritsi eta gelara joan ginen, oheak aukeratu, zakuak jarri eta hondartzara!!!



Itsasoko ura hotza zegoen baina hala ere bainatu egin ginen. Bazkaldu ondoren batzuk deskantsatzera joan ginen: Amaia, Jokin, Martin eta Eneko. Literatan paseka ibili ginen baina Martinek, nahi gabe, argia jo zuen; eskerrak Jokinek fluoreszentearen tapa konpondu zuen.



Arratsalde partean Zarauzko kanpinera joan ginen. Han hiru kilker harrapatu genituen. Handien gelako kilkerrari "Txurruka" izena jarri genion. Iluntzeko zortzi eta erdietan afaltzera joan ginen: entsalada, pizza eta natilak

jan genituen. Ondoren futboleko jolastu genuen bertako belar artifizialeko zelaietan.



Hurrengo egunean gosalduta eta Oriora Goenkaleko azken grabaketa ikustera joan ginen. Goenkaleko M^a Luisa, Kepa Margari eta Julia aktoreekin argazkiak ateratu genituen eta autografoak sinatu zizkiguten. Ondo pasa genuen lehenengo eta baita bigarren egunean ere !!!!



IKASTURTEA ARGAZKITAN



Urteroko gabon bazkaria



Zubieta Iturengo iñauteriak- beste herri bat beste ohitu



Gelako lan



Apaizaren bisita, irratsaiorako elkarrizketa egiten

Gurasoak ere irakasle, ipuin kontalari



Goe



txikiak egiturak altxatzen



Ardatza bukatutakoan



Txikiak hondartzan pozik



Adunakoekin



Ohitura zaharrak mantentzen, auzoz, auzo, baserriz, baserri



Mattinen urtebetetzea os



ean



Mirandaola, antzineko burdinola, ezagutuz



Etorkizuneko aktoreak

Gure helduak alaitzen, Fraisoron



nkaleko guapoarekin, Orion



Handiak txikiari dakiena erakusten



n Miamiko kostaldean



Orioko Irteera



Batzuk, sagardotegiaren barruan,... kantatzen





patzen



Iñauterietako gazteenak



Besteak aldiz, kanpoan jolasten



BITXIKERIAK

Jose Mari Aranzabe

Alkizan 320 biztanle zeuden 2005eko abenduren 31n; aurreko urtearekin alderatuta, 19 gehiago. Hori horrela izateko 31 alta eta 12 baja egon dira. Altak modu honetan banatzen dira: 23 beste tokietatik etorritako biztanleak dira, eta gainerako 8ak bertan jaioak.

Edadez, biztanleriaren egoera hauxe da:
0 eta 20 urte bitarteko 40 gizonezko eta 30 emakumezko . %21,88 gutxi gora behera.
21 eta 40 urte artekoak , 49 gizonezko eta 48 emakumezko dira. % 30,31
41 eta 60 artekoak, 56 gizonezko et 35 emakumezko dira. %28,44
61 eta 80 artekoak, 33 gizonezko eta 17 emakumezko dira. %15,63
80 urtetik gorakoak, 6 gizonezko eta 6 emakumezko dira. %3,75.

GUZTIRA: 184 gizonezko eta 136 emakumezko.

Jaiotzak 8 izan dira:
Iñaki Auzmendi Barea. Santiago ermita bidea, 4, ezk.
Malen Aranburu Goya. Urruzola baserria
Nahia Goenaga Morea. Goiztiri etxea.
Irati Txapartegi Aranburu. Urruzola baserria
Urtzi Sorarrain Iriarte. Peruko
Lorea Ropero Ruiz de Gauna. Etxaburu 1, 1. esk.
Aritz Pellejero Iruretagoiena. Etxabekoa.
Aimar Altuna Aramendi. Santiago ermita bidea, 4, esk.

Bestalde, kanpotik etorritakoak, lehen esan bezala, 23 izan dira.

Hildakoak 4 izan dira 2005. urtean:
Mateo Jauregi. Garmendi Azpikoa
Paulo Uzkudun Ugalde. Aizmendigainekoa.
Cristina Goñi. Kukutegikoa
Izaskun Mendizabal. Bentzalaga Txiki baserrikoa.


Ezkontzak Alkizako San Martin parrokian 2005. urtean:

Igor Zubillaga eta Miren Arantxa Sorarrain. Bata Alegikoa, bestea Alkizakoa

Jesus Mari Rojo eta Amaia Oiarzabal. Tolosakoak

Bataioak, azkenik, zazpi hauenak izan dira:
Naroa Iturrioz Roteta. Azaldegi Etxeberrikoa.
Alvaro Martinez Bazna. Arangurengoa
Malen Aranburu Goya. Urruzolakoa
Nahia Goeneaga Morea. Goiztirikoa.
Irati Txapartegi Aranburu. Urruzolakoa.
Urtzi Sorarrain Iriarte. Perukoa
Aritz Pellejero Iruretagoiena. Etxabekoa.





PATXI ARTZAMENDIREKIN HIZKETAN

Alkizako Herri-bideen eta Ondare kulturalaren inbentarioa egin du

Jose Mari Aranzabe
Imanol Lizardi

Donostian jaioa da. Asteasun bizi da. Patxi da bere izena, eta Artzamendi lehen abizena. Urte erdi luzez ikusi ahal izan dugu Alkizako bideetan zehar, apunteak hartzen eta argazkiak ateratzen. Bulegoa, Erretore-etxean Belarmendik duen gelatxo horretan zuen kokatua. Baina, zer egiten ari zen Patxi Alkizan ari zenean? Zertarako zen haren lana? Galdera horien eta gehiagoren erantzunen bila jo dugu bere-gana.

Lehenik eta behin Patxi, esaguzu zertan datzan zuk egindako lana.

Nik egin dudana izan da, labur esanda, Alkizako Herri-bideen eta kultur ondarearen inbentarioa. Era berean, herriko mugarrak ere kokatu ditugu. Azken arlo honen inguruan artikulutxo bat dago ale honetan bertan, neuk idatzia, eta ez naiz, beraz, hemen luzatuko. Halere, eskerrak eman nahi nizkieke lan honetan laguntzaile sutsuak izan ditudan Juan Zabala, Joxe Mendizabal, Javier Iruretagoiena, Periko Urruzola, Pantaleon Saralegi, Iker Zabala eta Jose Mari Aranzaberi.



Patxi Asteasuko
bere baserriko
atarian

Ondo da. Beraz, mugarrak alde batera utzita, zer da herri-bideen eta ondare kulturalaren inbentarioa?

Batetik, aurretik batez ere Pello Joxe Aranburuk egin zuen lan apartan agertzen ziren toponimiari buruzko izenak euren lekuetan kokatzea; hau da, leku, bide, paraje, sail eta abarren izenak zehatz-mehatz jartzea zegokien tokietan. Egia esan, puzzle bat egitea bezalakoa izan da lana. Pello Joxeren lanaz gain, artxibotetan aurkitutako hainbat dokumentu ere erabili ditut; baita "Registro de la Propiedad" delakoan utzitako beste zenbait dokumentu ere.

Bestetik, herri-bideak sailkatu egin behar ziren. Kokatu mapa batean, eta zein diren publikoak eta zein ez, definitu. Kultur ondareari dagokionez, berriz, hemen ia dena sartzen dela esan behar dut: base-riak, ermitak, karobi-zuloak, elurzuloak, galtzadak (herri honetan oso garrantzitsuak dira), zubiak, basoak, iturriak, erreketako igaro-bideak, bideak eusteko hormak, txondor-plazak, eskortak... Hauek guztiak bilatu, mapan kokatu, zegokien izena jarri... Hori dena egiteke zegoen.

Barkatu baina, zer dira eskortak?


Eskortak harrizko itxiturak dira. Gehientsuenak abereak han sartu eta handik ez ateratzeko eginak omen dira; baina Alkizan, bestelakoak ere aurkitu ditut, hau da, espezie jakin batzuk landatzeko erabiltzen ziren lekuak ixteko zirenak, han animaliak sar ez zitezen.

Esango al zeniguke zer den herri-bide bat?

Garai batean gorputz-bideak omen ziren, bide nagusiak. Gaur egun, jakina da bide nagusiak errepideak direla, eta herri-bide bezala ezagutzen ditugunak auzo-bideak dira, hau da, etxe batetik bestera, edota bide nagusira doazenak. Horien ezaugarri nagusia da euren lurra publikoak direla, ez direla jabego pribatukoak. Bestalde, baditugu ere zor-bideak edo "serbidunbrekoak" direnak, hau da, lur-sail bat baino gehiagoren jabeenak direnak. Horien katalogoa ere egin dut, nahiz eta beraien praktikotasuna gaur egun zalantzan jartzen dudana.

Nork aginduta egin duzu lan hau?

Alkizako Udalak interes handia zuen herri-bideen eta kultur ondarearen inbentarioa egiteko. Ezagutzen zituzten nik aurretik Zizurkilen eta Billabonan (Amasan batez ere) egindako lanak; eta hemen antzeko zerbait egitea nahi zuten. Horretarako "INEM Corporaciones Locales" delakoari diru-laguntza eskatu zioten, eta horri esker, sei hilabetez jardun nuen lanean, egun erdiz. Denbora amaitu ondoren, Udalak bere kabuz ia beste bi hilabetez, egun osoz gainera, luzatu zidan kontratua, lan guztia bukatu ahal izateko..



Zer nolako eragina izango dute lan hauek herritar- rangan?

Lehenengo, eskuetan duzuen Imanol Goikoetxeak kaleratu duen mapan agertzen diren toponimia izen asko eta asko, hemendik hartuak dira. Gero, Diputazioak Udalaren eskaerari erantzunez, boletinean publikatua du herri-bideen inbentario hau. Norbaitek alegazioak egin nahi izanez gero, izan du



aukera joan den maiatzaren 22a bitartean. Ezin da ahaztu ere, lehendabiziko asmoetako bat zela Udalak hauek konpontzea eta garbitzea. Oso interesgarria irudituko litzaidake, bestalde, egunen batean material hau erabiliz, herri-bideen gida bat egitea, herritar guztiok, zeuen herria hobeto ezagutzearren.

Hainbeste ibili ondoren, izango duzu zerbait berezia kontatzeko, ezta?

Ez dakit ba. Behin, Asteasuko mugan, Oliturri aldean, mugarri berezi-berezi bat aurkitu genuen: pizarra harria zen. Inguru horretan garai batean burdin-metala omen zegoen. Horregatik izan daiteke.

Beste batean, Albistegi aldean orkatx txiki bat ikusi nuen, baina nirekin nonbait beldurtu, eta alde egin zuen.

Borda borobil baten aztarnak ere aurkitu nituen halako batean, Ernioko Hiru-Gurutzeta aldean. Oso-oso zaharra zen.

Belanburu aldean, berriz, trintxera moduko bat aurkitu nuen. Borobila zen, eta Belanburuko muino osoa inguratzen zuen. Aspaldiko gerraren batekoa izan daitekeela uste dut.

Azkenik, esango dizuet Santiago bidean ikusten diren "kontxa" horietako bat dagoela Loidi aldeko estela batean. Esan izan da garai batean Santiagora iristen


ziren bide horietakoren bat Alkizatik pasatzen zela. Estela hau hor egoteak iritzi horri indarra ematen dio.

Zure ustez, ezagutzen al dugu Alkizan gure inguru- a?

Baserritarrek euren sailak bai, baina gainerakoan iruditzen zait jendea oso gutxi ibiltzen dela herriko bideetan zehar, ehiztariak eta perretxikolariak izan ezik. Oso-oso ibiltari gutxi ikusi dut, aste barruko egunetan behintzat.

Zer esango zenuke auzolanari buruz?

Historian zehar auzolana bidegintzan oso garrantzitsua izan da, baina garai zaharretan. Hogeigarren mendearekin batera, asko aldatu ziren gauzak, eta ez dut uste inoiz lehen izandakora bueltatuko garenik.



Beno Patxi, eta amaitzeko, gerora zer?

Gerora... Bide hauek erabili egin behar dira. Baina kontuz, ez dut esan nahi inola ere denak pista bihurtu behar direnik, ez eta pentsatu ere!

Bestalde, kontuan izan behar dugu baso autoktonoak askoz ere egokiago mantentzen duela inguru. Alertzeak eta pinuak ez dute batera laguntzan zeregin honetan.

Badakizue beraz, gaurtik aurrera edozein baso, erreka, bidexka edo mendi-puntan, galdu itxura duen gizon bat ikusten baduzue, pentsa ezazue Patxi izan daitekeela. Hori bai, ziur izan ez dagoela galduta, ondo baino hobeto baitaki beti, nondik nora dabilen. Eta mesedez, ez diezaiozuela goxotasunez luzatutako "egunon" edo "arratsaldeon" bat ukatu. Mila esker, Patxi.




GURE PIZTIAK

Inaki Irazabalbeitia

Urtero-urtero, nekatzen ez zaituztedan bitartean behitatzat, Alkizan ikus edo suma daitezkeen piztien berri emango dizuet orrialde hauetan: bina aldi bakoitzean.

Katajineta (*Genetta genetta*)



Katajinetar bere zuloan (Arturo Elosegi)

Ez da erraz ikusten den animalia. Gauez ibiltzen da. Bakarzalea izanik, basoa eta sastrakak gogoko ditu. Akaso, gauren batean, kaminuan gora etorrira, katu batekin konfundituko zenuten kotxearen argiak, momentu batez, argitzean. Ez litzateke harritzekoa, katuaren antza baduelako, nahiz eta muturra eta isatsa luzeagoak dituen.

Isatsaren luzera gorputzaren adinakoa da ia. Baserritarrek, oilaskoak dituztenek hain justu, ez dituzte asko maite, noizik eta behin, oilaskoren bat harrapatzen dielako. Katajineta karniboroa da, animaliak ehizatzen ditu alegia, eta ugaztun txikiak, txoriak eta intsektuak jaten ditu. Txitaren bat harrapatuta ere, makina bat satitsu, sagu eta arratoi ere jango zituen lehena-go.

Alkizan jineta esaten zaio, gaztelaniaz bezala. Ez da hori harritzekoa kontuan hartzen badugu, piztia ez dela bertakoa Afrikatik etorritakoa baizik eta antzeko izena duela Europako hizkuntza askotan. Uste da duela 2.000 bat urte ekarri zuela gizakiak Iberiar penintsulara, izan ere, feniziarrek, erromatarrek eta arabiarrek sagu eta arratoiak kontrolatzeko etxeko animalia moduan izaten zuten.

Esan bezala ez da ikusteko erraza. Batzutan disekata ikus daiteke katajineta tabernaren batean eta piztia ederra dela pentsatuko duzue. Bada Alkizan katajineta etxean disekata duenik. Kasu, babestutako espeziea da! Dena dela, maiatzaren 24ko goizean,

Anoetako bide bazterrean, auto batek jota hilik agertutakoa ikusteko aukera izango zuen zuetako bateren batek.

Sai arrea (*Gyps fulvus*)

Putrea, ordea, erraz ikusten eta bereizten da, gure zeruetan hegan egiten duen hegaztirik handiena delako. Hego-zabalera ia 3 m-koa izan dezake. Sarraskijalea da, alegia, hildako animaliak jaten ditu. Katajinetari ez bezala, saiari lagunez inguratuta bizitzea gustatzen zaio eta kolonia handiak osatzen dituzte. Ikuskizun polita izaten da kolonia horietako bateko



Saia planeatzen (Joserra Aihartza)

saiak guztiak aldi berean hegan hasten direnean. Hegan idatzi dut, planeatu idatzi izan banu, zuzenago ibiliko nintzatekeen. Izan ere, saiak oso gutxitan astintzen ditu hegoak eta oso trebea da gorantz doazen aire-korronte beroak probesten altura hartzeko.

Alkiza inguruetan, Gipuzkoako beste toki askotan bezala, saiak desagertu egin ziren XX. mendean zehar. Pizti gaiztotzat jotzen zen eta saia ehizatzeagatik sariak ere ematen ziren. Gizartearen kontzientzia eta bizimodua asko aldatu dira eta, ondorioz, animalianaganako jarrera. Hori dela eta, 1970etik hona sai arrea Iberiar penintsula osoan asko ugaritzen ari da. Gure inguruan, duela hamar-hamabi urte lehen putreak ikusten hasi ginen bueltan, Ernio gainean hegan. Aralar ingurutik etorritako ale solteak ziren. Duela bost bat urte, kumatzen hasi ziren Zopite inguru horretan, harkaitzak maite dituzte eta. Orain, maiz ikusten dira, hegoak zabal-zabal eginda, gure zeruak zaintzen.

MIGEL IRAZUSTA ALKIZAKO SEME ETA ESKULTORE BARROKOA, 1665-1743

Pello Joxe Aranburu

Migel Irazusta Aritzetegi Ateaga 1665ean, abenduaren 24an, Alkizako San Martin parrokian bataiatu eta Aginaga baserrian jaio zen. Migelen gurasoak honako hauek izan ziren: Joan Martin Irazusta Ateaga eta Isastegietako Madalena Aritzetegi. Hamar senidetatik zazpigarrena izan zen. Eskultore hari buruz ihardun duten guztiak bat datoz bere egoitza finkoa Madrilen ipintzearekin. Gortean eskultura lanetan aritu zen eta bere azken urteak Gipuzkoan igaro zituen. Migel ez zen ezkondu eta Madalena ilobak lagundu zion Bergaran, 1739-1743 urteetan. Hirurogeita hemezortzi urte zituenean, 1743ko otsailaren 12an hil eta hurrengo egunean ehortzi zuten Bergarako Santa Marinako Urdangarindarren sepulturan, eliza hartako hiru erretaulak amaitzeaz zituenean.

Bere arte-heziketa

Migelen testamentu lanak Bergarako Lorentzo Larraza notarioaren aurrean egin zirenean, beste dokumentu askotan ageri den bezala, titulu haxe ipini zioten Don Miguel de Irazusta Maestro de Arquitectura del Rei nuestro Señor... Maila hori lortzeko zer bide egin zuen, ordea, inon ez da ageri. Migelen garaian ez zegoen arkitektura ikasteko ikastetxerik, Madrilen Academia de las Bellas Artes de San Fernando izenekoa 1740. hamarkadan eraiki baitzen. Migelek gremiokoen bidea erabili zuen. Beste maisu batzuen artean, gaur bere liburutegiaren berri badugu. Maria Isabel Astiazaranek arkitekto-eskultore haren arte-heziketa sakonki aztertu du. Bi zatitan banatu du bere iharduna: arkitektoaren liburutegia eta prestakuntza intelektuala alde batetik, eta bestalde, liburutegiari buruzko azterketa.

“Gure arkitektoaren liburuetan berebiziko garrantzia izan zuen Pietro Cataneo-ren liburuak, bertan hiriak, elizen kokapenak, gazteluak, jauregiak eta gotorlekuak eraikitzeko, hala nola ordenamenduak, proiektzio geometrikoak eta perspektibak egiteko ere, oinarriak eskaintzen baitzuten”.

Migelek bazituen beste liburu batzuk praktikoagoak, gidaliburutzat erabiliak, hala nola, Anaia Lorentzo San Nikolasen Arte y uso de la arquitectura liburua, edo gangei buruzko Joan Torrijarena. Eskura zituen Lorenzo Sirigatti-ren beste gidaliburu bat, arkitekto eta eszenografo zen Andrea Pozzo jesuitarenak, Ferdinando Galli Bibiena eszenografoarena, Antonio


Palominoren lanak e.a. Aipatu liburuan Astiazaranek honela laburtzen du Migelen prestakuntza intelektuala:

“Begi bistakoa da, bere liburuak ikusita, oso garbi zuela barrokoa zertan zen. Liburu horiek adierazten digutenez, artearen ezagupenaz eta erabilgarritasun profesionalaz kezka handiko gizona zen. Bere liburuek espezializazio joera nabarmena erakusten dute: arkitektura, matematika aritmetikoa eta geometria. Perspektiba menderatzeak ere garrantzia handia zuen berarentzat, bazekielako perspektibaren bidez irudipen eszenografikoak gorpuzteko aukera izango zuela. Proporzioak eta ikonografiak ere garrantzia handia izan zuten Irazustarengan, bere ondasun bibliografikoek hala erakusten baitute”.



Santa Maria erretaula

Migelen obrak erretaula barrokoak zabaltzen eginkizun aparta bete zuen, honako ezaugarri hauekin osa-



tuz: zurez eraikitako erretaula tzarrak, urrez blaitutako eskenatokiak, zutabe Salomonikoen artean egoki kokatu eta adierazpen handiko santu-irudiak.

Migelen obra

Migelen obrak lau alde izan arren, nik hemen labur-labur soilik hiru landuko ditut: erretaulen traza, tailatutako erretaulak eta artegintzako bere eragina.

Marraztutako 17 erretaulatako trazak

Hamalau traza Irazustak egin zituela dokumentaturik dago. Honako hauek dira:

Madrilgo San Felipe El Realeko komenturako, 1718 aldera. Testamentuak bere egiletasuna frogatzen du. Toledoko Villarrubia Santiagoko San Bartolome elizako erretaula nagusikoa, 1722 aldera. Testamentuan horrela ageri da.

Bergarako Santa Marina elizako erretaula nagusi eta bi albotakoak: Purgatorioko Arimen eta Errosarioko Andre Mariaren erretaulatakoak, 1736-1743.

Valladolideko Karmeldar Oinetakodunen Komentuko San Joakin eta Eskuaren Andre Mariaren Kaperetako bi erretaulen trazak, 1739.

Valladolideko San Agustin komentuko erretaula nagusiko traza, 1740 aldera.

Donostiako Santa Maria eliza eraikitzeko proiektua burutu zuen, 1741 aldera.

Idiazabalgo San Migelen elizako erretaula nagusiko traza gauzatu, 1741 urtean Irazustak ondu egin zuen Iparragirrerren traza eta erretaularen idulkiaren diseinua ere beregain hartu zuen, 1744.

Olaberriko San Bartolome elizako erretaula nagusiko traza, 1742.

Segurako Jasokundearen Andre Mariaren elizako erretaula nagusiko traza gauzatu zuen, 1743. Maria Isabel Astiasaranek Madrilgo Liburutegi Nazionaleko marrazki-fondoetan Segurako erretaularen diseinua aurkitu eta argitara eman du.

Anoetako San Joan Bataiatzailearen elizako Arrosarioko Andre Mariaren eta San Sebastianen alboko erretaularen trazak.

Agian, Alkizako San Martin parrokiako aldare nagusi eta alboko Joan Bataiatzailearen bi trazak ere Migelek egingo zituen, dena den ez dago frogaturik.

Gainera, bere testamentuan baditu beste hiru traza xehetasun handiegirik gabekoak.

Horrela, hamazazpi traza burutu zituenez, trazagilearen sona ondo merezia lortu zuen eta erretaula barrokoen hedapenean zeregin bikaina jokatu zuen.

Tailatutako erretaulak

Duda-mudakoak alhora utzita, Alkiza eta Bergarako bost erretaula behintzat burutu zituen Migel Irazustak: Alkizan San Martin elizako erretaula nagusia eta San Joan Bautista Bataiatzailearena, Bergaran, Oxirondoko Santa Marina elizako aldare nagusikoa, alboko Purgatorioko Arimen eta Arrosarioko Andre Mariaren erretaulak.

Bere itzala eta eragina artegintzan

Migel Irazustak berak garai hartako eraikuntzetan harremanak izan zituen beste honako hauekin: beste batzuen artean, Frantzisko Ibero eta Inazio Ibero, Jose Lizardi, Martin Zaldua, Martin Sarobe, Martin Karrera, Jose A. Iparragirre, Joan Bautista Jauregi, Lekeitioko Inazio Ibarretxe, Jose Asentsio Zeberio, Jose de Sierra, Luis Salvador Carmona eta Joan Bautista Intxaurrandiaga alkizarrarekin, batzuetan bere trazak gauzatu zituztelako, beste batzuetan lan-kidetzan aritu zirelako.

Burgosko Mirandan jaio eta elkarrekin Madrilen lanean aritu zen Diego Martinez de Arce, eta bestalde, Toledoko Pedro de Luna nahiz Urretxuko Tomas Jauregi eskultoreengan eragin zuzena izan zuen Migel Irazustak. Eskultore alkizarra hil ondoren eraiki ziren hainbat haltzari liturgikoei ere eragin bertsua damaiete arte kritikalariek, hara nola, Nafarroako Lesakako parrokia, Toledoko Santa Maria de los Yebenese, Tolosako Santa Klara komentua, Zumarragako Jasokundearen Ama Birjina izeneko parrokia eta Gabiriako erretaula nagusietan eta abarretan.

ALKIZAKO MUGARRIAK ETA HERRI-MUGAK

Patxi Artzamendi

TESTUINGURU HISTORIKO ETA GEOGRAFIKOA

Gaur egun, Alkizako udalerriko lurrak, Anoeta, Hernialde, Tolosa, Albiztur, Errezil, Larraul eta Asteasu herriein muga egiten du eta 11,9 km karra-tu ditu baina aintzinean, Alkizako toponimia historian zehar begiratuta eta zenbait dokumentu ikusita, hedadura gehiago omen zeukan. Azter dezagun kro-nologikoki mugen gai hau.



Lambertako mugarrria ikusten

XII-XIII. mendeak arte (1200) Gipuzkoako lurraldea Nafarroako Erreinuaren eskuetan zegoen eta orduantxe hasi ziren Gaztelako Erreinuarekiko istiluak. **XII.** mendean Donostiak Hiribildu tituloa lortu zuen Nafarroaren Erregearen eskutik (1180) eta baita Tolosak ere, pixka bat geroxeago, **XIII.** mendean (1256). Garai hauetan herrixken artean elkartzeko orduan “Hermandadeak” edo Bailarak ziren nagusi. Gure inguruan Erniobe, Tolosa eta Hernani artean, eta Zumabazarrea elkartzen zituzten Ernio aldeko herrixkak edo etxaldeak.

XIV-XVIII. mende luzeetan zehar, (1735 Hiribilduaren tituloa eskuratu arte) Alkiza herria bai Tolosa (1348tik aurrera) bai Donostiaren menpe (XV. mendetik aurrera) bizi izan zen. Hasiera batean, auzotasun edo anexioa Tolosari dagokio, Tolosaldeko beste herri guztiekin gertatu bezala. **XIV.** mendean Alkizarrek

beren agintariak (juradoak eta regidoreak) aukeratz-zen zituzten eta bere eremua mugarrituta zeukaten “sus seles, bustalicas, herbales, pastos, aguas” (1348ko Tolosarekin auzotasun idazkian). Geroago, XVI. mendetik aurrera Alkizako kontzejuko herri-basoen zenbait izen aipatzen dira (Erlaustiri, Beñar, Aitzluze, Ernio..). Guzti hau dela eta, pentsatzekoa da ordurako mugagune edo mugalerro ezarriak egongo zirela.

Aintzinako Alkizako hedadura aldetik iruzkin bat. **XVII-XIX.** mendeetan ere Alkizako herrisail-zen zerrendaren artean azaltzen dira holako izenak: Utseta, Iruaitzeta, Sakate, Larretxiipi, Erlostidi, Loidiazpia... hau da, gaur egun, Larraulgo udalerriri dagokion Usarrabi baila-raren iturburuaren aldea. Kontutan hartu behar da Larraul herria Aiztondoko Alkatetzan sartu-ta egon zela, Asteasu buru izanik, 1200tik 1840. urtera arte, herria erabat burujabe bihurtuz. Dudarik ez dago, Alkiza eta Larraulen arteko lehengo mugak eta gaurkoak ez direla berdinak. Bestela, geografikoki eta orokorrean, beste toki askotan bezala, Alkizako mugak naturalak dira, errekek eta mendiek muga egiten dute, hau da bailarak; Ernio mendilerroa (Errezil, Albistur, Tolosa eta Hernialde), Alkiza erreka,

Kontzejal errekaen goikaldea edo Astabi erreka, Aranguren erreka eta azkenik, Ernio Txikitik Murgil muinoraino dagoen muinlerroa (Alkiza eta Larraulgo mugak).

HERRIMUGARRIAK

Alkizako Kontzejuko agintarien ahalmenen artean _ Donostiako Udalaren menpean izan zen garaian, hau da, **XV-XVIII.** mendeak bitartean, herrimugarri beha-ketarena zegoen. Alkizako Herrimugarriak urtero behatzen zituzten. Urteroko ikusketa horietan batzu-tan erabakitzen zen mugarri berriak jartzea.

Esate baterako **XVII.** mendean, Alkizako herria, kont-zejua izanik, eta Saiaz alkatetzan barne, 1620 urtean, Irumugarrietako lepoan mugarri berria ipini zen . Hasieran, Saiaz, Aiztondo Saiaz alkatetza nagusiko



Maratulusko mugarrian Pamtaleon

herriek autonomia lortu zuten eta gero, "laumugarrieta" bilakatu zen Albiztur, Errezil, Aiztondo eta Alkiza (Gaur egun, mugarri berria dago bertan).

XVIII. mendeari dagokionez dokumentazio ugari dago herri-mugarrietaz. 1735ean herriko ordenantzak onartu ziren. Seigarren arauari zegokionez, herri-mugarrei buruzko erabakiak onartu ziren, urtero ikuskatu behar zirela azpimarratuz. Azter dezagun piska bat. Behin, Alkizako hiribildutasuna lortuta (Villa), 1731kako ekainan zehar, herrimugak aztertu eta definitu zituzten, batzorde bat osatuz. Alkiza udalerraren mugakide ziren herriei, hau da, Asteasu (garai horretan Larraul ez zuen autonomiarik), Errezil, Tolosa (Hernalde ere ez zuen autonomiarik) eta Anoetari herrien arteko mugak definitu eta ezartzearen alde berri eman zitzairen. Alkizak, Asteasu, Errezil, Albiztur, Tolosa, Hernalde eta Anoeta herri eta kontzejuekin zituen mugak ikuskatu zituen. Guztira, 67 mugarri ipini zituzten mugarrilariek.

XIX. mendearen bukaeran egin zen mugarritzatze eta mugaketa bat Alkizako udalerrri mugakideekin, 1871ko urrian zehar burutu zena hain zuzen ere; urte batzuk geroago, beste ikusketa bat egin zen 1889. urtean.

Hona hemen mugarrien zerrenda (dokumentuetan azaltzen diren toponimo edo toki geografikoa aipatuta):

ERNIO MENDILERROAN

Errezil, Albiztur, Tolosa, Hernalde eta Anoetako mugak.

Irumugarrieta, Ezkurreta, Egillon (Putreaizko mugarria), Olarreta, Beñar, Irugurutzeta, Atameaga, Urteaga, Zugaste/Abaro-Azpia, Abaro, Olain/Olarain, Elkategi, Elkategi-barrena, Oazuri, Eskarmendi Aldapa, Lupazko aitzgaña, Lupatz, Martin soro, Eskiaga, Urdanbelus, Intsusadi, Berrelus/Gezurgaztaineta

ERREKEN ARTEKOAN (ALKIZA ERREKA, ASTABIAGA ERREKA, ARRAIAGA ERREKA)

Anoeta, Asteasu eta Larraulgo mugak


Abaldabe, Agarako, Antxuko erreka, Antxu, Zingira, Maratulus, Basatxabal, Sakario, Aginaga sorotako, Saletxea, Lamberta/Olatza, Olatz Azpi/Gaztañadi, Itxia, Oliturri/Astabiaga, Intxaur ausiaga, Zalmiñagako iturriazpia, Zalmiñaga/Arizmendiko gaña, Arraiaga, Luiskardi

ERNIO TXIKI-BELAIETZETA-MULLIBIL-MURGIL MUINOLERROA

Errezil eta Larraulgo muga

Larrunbide iturriandoa, Larrunbideko iturburua, Aldanoaldeko bidebea, Aldanoaldeko bideburua, Muñogañeta, Leizeta, Zemiño-bazterra, Gurutzeagako sorobazterra, Almitxuri-zarra, Lizarzelai, Muñobiribil, Agirregi, Loidi, Loidiko bideberri muturra, Agote, Larretxipi, Mugerzako gaina, Mugerza Azpia, Utseta-burua, Irumugarrieta.

ALKIZAKO HERRI-MUGARRI AIPAGARRIENAK



Aurkitu ditugun mugarren artean, honako hauek dira aipagarrienak:

*Ernioko mendilerroan: Errezil, Albiztur, Tolosa eta Hernialde

Irumugarrietako mugarría (Irumugarrietako lepoan, mugarrí borobila eta berria), Ezkurretak mugarría (Ezkurretak bidetxurraren ondoan dagoen harkaitzan gurutze bat inskribituta), Olarretako mugarría (Olarretako hegoaldeko isuraldean, zelaian kokaturik, “menhir” txiki antzera jarritako harrizko zutarría), Atameagako mugarría (Atameagako hegoaldeko isuraldean kokaturik, bi gurutze inskribaturik).

ALKIZA ETA ARANGUREN ERREKEN ARTEKO INGURUAN

Gezurgaztañetako muga/Berrelusko mugarría (Alkiza eta Hernialde arteko herribidean, mugakideen inizialak inskribaturik bai harrian bai pagoan), Antxuko mugarría (Antxuko estualdian, errepide ondoan, pinudian, harri losa errektangularra, lerroa inkribituta), Lamberta/Olatzako mugarría (Zabale baserriaren gainean dagoen muino batean, gurutze inribaturik)

KONKLUSIOA

Ikustatu ditugun mugarren artean, nahiz eta ez dagoen grabatuta datarik, (gehienetan gurutze bat edo bi inskribituta antzeman daitezke) esan daiteke zenbait mugarrí oso zaharrak direla, Ernio aldekoak gehien bat, Alkiza kontzejua izan zeneko garaikoak, hau da, Erdi Arokoak izan zitezkeen; zehazteko pitin bat gehiago aipa dezagun esaldi hau: *“...a fines del siglo XV, la lucha por el control del espacio ya no será tanto entre las villas y señores rurales como entre las propias villas, que han de amojonar sus términos para evitar equívocos en la explotación de los mismos...”*. Bukatzeko esan beharra dut oraindik mugarrí asko geratzen direla topatu gabe, behintzat XIX. mendeko azken mugatze eta ikusketatze dokumentoari erreparatzen badiogu. Oraindik ere bada ikerketa lana, ea zerbait gehiago sakontzen den herriko kultur-ondarea den heinean (Mugarriak, Aiztondo- Larraulgo mugaren historia, muga, mugarriaren izenak...)

Bibliografia eta dokumentazio iturriak

-Euskal Toponimiazko materialak. Luis Mari Mujika. Gipuzkoako Foru Aldundia.

-Alkiza auzo eta hiribilduaren azterketa historikoa (1348-1950). Pello Joxe Aranburu Ugartemendia. Alkizako Udala.

-RSVAP aldizkaria. Los repartimientos vecinales en Gipuzkoa. Díez de Salazar, L. M. 1978. 575-600 orr.

-Revista Mundaiz, nº 4. Guipuzcoa y el Reino de Navarra en los siglos XII y XV.

- Actas de deslinde y amojonamiento de 1871. Alkizako Udal Artxiboa.

-Mapa-plano de 1884 de la zona de Erniozabal (deslinde y amojonamiento de Tolosa) realizado por el arquitecto P. Gorostidi. Tolosako Udal Artxiboa.

ALKIZAKO HERRIBIDEAK

Pascual Madoz XIX. mendeko historialariak Alkizako bideei buruz aipatzean honako hau esaten zuen 1850an: “Los caminos son vecinales, pero bien cuidados”. Esaldi honekin garbi asko ikusten da auzobide edo herribide kontzeptuek zuten garrantzia zeren eta adierazpen baitan aldarrikatzen da Alkizako bideen publikotasuna. Aldi berean, bideen egoera ona ere azpimarratzen da.

ANTZINAKO TESTIGANTZAK

Aintzinean, aurrehistorian, esan daiteke bazela bidere bat Itzuregi ondotik pasatzen zena garai hartako artzaiek erabilia. Itxuraingo tumuloa da horren adibidea. Zizurkilen badago antzeko kasua, bide nagusi ondotik beste tumulo bat aurkitu baitzuten.

HISTORIAN ZEHAR

Alkizako bideei buruzko aipamen zaharrena 1348ko Alkiza eta Asteasu Lurrek Tolosarekin egin zuten Auzotasun-Hitzarmenarena da: “los otros lugares de Alquica e de Asteasu / 18 de suso nombrados cada unos que ayan sus rentas para si para puentes e fuentes e calzadas e para reparar muros...”.


Orokorrean, herri bateko bideetaz aritzean bereiztu daitezke bi bide mota: herriz kanpoko bideak eta barneko bideak.

1-HERRI KANPOKO BIDEAK: HERRIBIDE NAGUSIAK

Erdi Aroan (X-XIV)

Erdi Aroan Alkizan bi ermita izatearen garrantziak **XI**.





mendeko Santiago baseliza/ermita (zutik dirau Zizurkigo bide zaharrean, herriburutik gertu) eta **XII.** mendeko Santakruz baseliza/ermita (suntsitua Itzuregiko bidean kokatua_ aintzinako bide baten arrastoan jartzen gaitu. L. Peña Santiago bidai-kronikariak, Antxon Agirre Sorondo, Pello Joxe Ugartemendia eta Orella historiagileek bat datoz iradokitzean Donajakuren bideetako batek Alkizako herria zeharkatzen zuela Ernio mendian zehar, Zelatungo lepotik.

Geroago, Elena Barrenak historiagileak **XIV.** mendea ikertzean Asteasu eta Alkiza herriak Tolosak bereganatzea dela eta zubi eta galtzaden aipamenak aurkitu zituen. Konklusio gisa, eta Pello Joxe Aranbururen ustea jarraituta, esan dezakegu, Alkizako bide nagusia urruneko garai ilun haietan Hernialde-Alkiza-Zelatun edo Iturriotz zela. Hau da, Hernialde, Errezil eta Aiako herriak lotzen zituen bidea. Galtzada hau honako toki edo baserrietatik pasatzen zen: Arritzaga-Martitegi-Aritzetegi-Loidi. Kontutan hartu behar da, garai hartako bide luzeak mendialdetik zihoazela (ez bailaretatik) seguroagoak zirelako. Esate baterako, Alkizatik gertu pasatzen ziren bi bide nagusi: bata, Donostiatik Azpeitirako bidea Iturriotzetik pasatzen zen edota Tolosatik Azpeitirako bidea Hernialdetik eta Erniozabal /Atamega ingurutik pasatzen zen.

Aro modernoan (XV-XVIII)

XVI. mendean bide eta pontoien egoeraz (egurrezko zubiak) kepatzen da Alkizako kontzejua. Geroago, **XVII.** mendearen hasieran, jakin badakigu Santiago Igor Alkizako galtzaden arduraduna zela eta Egurrolako zubia konpondu egin zela. Egurrolatik pasatzen zen Larraul eta Alkizaren arteko bide nagusia eta inguruan zegoen Egurrolako burdinola. **XVIII.** mendeari dagokionez aipa dezakegu datu esangurutsu bat:

Tolosa-Aia erregebidea indarrean jarri zen eta Asteasu, Larraul eta Alkizan zehar. Alkizako trazaketa buruz badakigu hiru bailara historikoak zeharkatzen zituela (Aldapa, Azaldegia eta Arana), hau da, Larrauldik Arraigako zubitik (Jose Ignazio de Ateagak eraikia 1758. urtean eta 1933an uholde haundiak deseginda) zeharkatzen zuela eta gero, Azaldegiko baserrietatik pasatuz herriburura ailegatzen zela (Azaldegia bidea); hortik Arana bailaran zehar, Kukutegiko zubia pasatuta eta Urkulluko baserriaren ondotik Hernialdeko bidea hartzen zuela.

Bide nagusi honetaz gain (Larraul, Asteasu eta

Hernialde herriekin lotzen zuena) garai honetan bide-sare nagusia osatuta zegoen:

-**Zizurkilgo bidea** (Santio ermitatik Aginaga baserrira eta hortik Asteasuko Zabale baserrira)

-**Anoetako bidea** (Errekalde baserrietik hasita, Antxutik behera, Alkizako erreka parean)

-**Asteasuko bidea** (Azaldegiko Aizmendi baserrietik Bordaxikitik pasatuz Asteasuko Bebearara)

-**Ernio bidea /Errezilgo bidea Zelatundik** (Hernio bailaratik, bi ardatz zeuden: 1-Aritzetegi baserri multzotik Loidi, Irumugarrieta; 2-Areta baserria-Itzuregi, Irumugarrieta


-**Iturriotz bidea** (Loiditik Utsetatik pasatuz Iturriotzera eta handik Aiara, Aiako bide zaharra zen hau)

-Larraulgo bidea (Egurrola zubitik Larraulgo Larrola baserrira, Larraulgo bide zaharra zen hau; bide berria aipatu dugu lehen, Arraigako zubitik). Dena den, Aldapa bailaratik Larraulera joateko bide asko zeuden (Arpitxerrietik Gurutzeagara, Arpidetik Antxoiara, Arpidegain-Gurutzeaga, Urrizpetik Larrola bidera, Urrizpetik Antxoi bidera, Aldanotik Aldanoaldera).

Bukatzeke aipamen bat esan behar dut, garai hartan, **XVIII.** mendean eraiki zirela gaur egun, ikus daitezkeen harrizko zubi gehienak, hau da, Kukutegiko zubia (Hernialde eta Tolosako bidean), Aritzetegiko zubia (Ernio bidea, Iturriotz bidea), Arraigako zubia (Aia, Asteasu, Larraul go bidea), eta beste hainbeste.

***Gaur egungo Aroa (XIX-XXI)**

XIX. mendean zehar bide-sare nagusiaren mantentze-lanak besterik ez direla egiten esan dezakegu. XX. mendearen etorrerakin gauzak ez direla aldatzen ematen du, hau da, Alkiza herriak jarraitzen du izaten Madozek aipatzen zuen “auzobide oso zainduak” baina, azken finean, gurdibideak ziren. 36ko Gerraren atarian, harrigarria bada ere, 2-2,5 metro-tako zabalera zuten bideak ziren nagusi inguruko herriekin lotzeko. Gipuzkoan baziren herri bakan batzuk egoera lardats honetan zeudenak, izan ere, bakarrik Gipuzkoako 7 udalerrri inlomonikaturik edo isolaturik zeuden: Albistur, Altzo, Alkiza, Anoeta, Belauntza, Hernialde eta Larraul, guztiak mendialdean eta Tolosaldean kokaturik, horietako 4 Alkizako mugakideak, hain zuzen ere. XX. mendearen erdialdean, Alkiza herriak, asfaltuzko errepiderik gabe jarraitzen zuen, nahiz eta 1935. urtetik marraztuta zeuden bi proiektu: bata, Asteasu-Villabona errepiderik Alkizara eta, bestea, Anoeta eta Alkiza artekoa.



Azkenik, 1952. urtean Asteasu eta Alkizaren arteko errepidea zabaldu zen, eta 1958an Alkiza-Anoeta errepidea. Gaur egun, XXI. mendearen hasieran, Diputazioak konpondu behar du Asteasutik datorren errepidea: bihurtzeko zabaldu (4 metro eskas zen-bait tokitan) eta asfalto berria bota.

2-Herri barneko bideak: auzobideak

Ugartemendia alkizarrak burututako ikerketari esker datu asko dakigu Alkizako XVIII.mendeko bide eta zubiei buruzkoak. Alkizako herri barruko komunikabideak hitz egitean bereiztu behar genuke herrisailtako bideak eta auzobideak/herribideak, azken hauek, baserriak eta herriburua lotzen zutenak, hain zuzen ere.

Baserritarrekin gai hauetaz hitz egin eta gero, bideei buruzko zerrenda luze bat aipatu daiteke. Saiatu gaitzen sailkapen bat egiten:



Olarretako mugarría

*Publikotasun aldetik: herribideak, auzobideak, legebideak, bidenaturalak, zorbideak

*Nekazal kontuekin zerikusirik duten bideak:

belarretako bideak, bordako bideak, mendi bideak, baso bideak, belaze bideak

*Erligio kontuekin zerikusirik duten bideak gorputzbideak, elizbideak, kalbario bideak

*Itxura, erabilera eta zabalera aldetik:

gurdibideak, bidetxurrak, estrata bideak, lerabideak, oinezbideak

XVIII. mendearen bigarren zatian, bide-sare ugaria zen, eta dokumentuetan ikusten zenez, toponimia aldetik oso zehatza eta aberatsa (oraindik ere geratzen dira argitu gabe bide batzuen izenak toponimia oso aberatsa baina batzutan zaila kokatzeko.

Hona hemen identifikatu ditudan zenbait herribide edo auzobide:

Ernio eta Aldapa auzoen artean

- Urruzola eta Aritzetegi artekoa zen bide nagusia
- Zearbide (Arantzabene eta Aldapa artekoa)
- Arantzabene-Aranguren
- Aldai/Ttontor bidea-Litsaso

Herriburua-Azaldegi-Aldapa

- Aldapa bidea (Lete-Garroko zubia)
- Untzuloko bidea (Beheko plazatik Aldapara)
- Soraluze (Iturriberrí bidea)
- Okalar bidea (Etxaundik Olara/ Etxaundik Oritara)
- Etxabegunazpia (Etxaun-Ola)

Aldapan zehar:


- Zearsoro (Arpide aldeko bidea)
- Aranguren-Garro
- Garro-Urruzola
- Ola errotaburua (Ola-Parregi artekoa)
- Urruzola-Arpidegain
- Urruzola-Urrizpe

Herriburua-Ernio

- Areta bidea
- Itzuregi bidea (Areta-Itzuregi)
- Lakapide
- Iturriotz bidea* (Aritzetegi-Iturriotz)
- Aritzetegi bidea/Lizarzelai bide

Ernion zehar:

- Irumugarrieta bidea
- Urdanasi bidea
- Ilunbe-Azpikozabal
- Lortxin-Alluts bidea



Ilunbe-Gaikozabal
Ilunbe-Elizbasoak

Herriburua-Arana-Ernio

Arana bidea* (Herriburutik Arana bailaran zehar baserriz baserri)
Aranan zehar
Basarte bidea
Igaranzabal bidea
Iribiti bidea
Lortxinaga bidea/Lortxin bidea
Lorxin-Albistegi
Askantxo-Elordegi-Lortxin bidea /Elordegi-Urbieta

Aranatik Hernialde aldera:

Aska bidea
Oazuri bidea (Albistegi)
Lupats bidea (Urkia)
Errekalegor bidea

Azaldegi-Arana-Sakamidra

Etxabe Txiki-Garaikoetxea
Etxabe Txiki-Zumitza
Zumitzeta-Zumitza
Antxu bidea

Azaldegi-Sakamidra /Zabale

Sarobe-Aginaga
Azaldegi-Zabale

Herriburua-Azaldegi-Sakamidra

Azaldegi bidea* (Azaldegi bailara ko bide nagusia baserriz baserri)
Jaskun/Jakun (Jaskun-Etxabe Txiki)
Etxabetxiki burua /Mendiola bidea

***Oharra:** herriz kanpoko bide nagusiak (Azaldegi bidea, Iturriotz bidea)

ALKIZAKO GALTZADAK

Alkizan badaude galtzada bidezati ugari zenbait bideetan zehar:

-Alkiza-Hernio (Zelatun, Iturriotz) /Aia-Errezileko bideak

* **Beandoain-Itzuregi/Ilunbe-Elizbasoak/Ilunbe-Azpikozabal**

-Beandoain baserritik aurrera, Itzuregi aldera Irumugarrietako ibilbide zaharrak; Ilunbe bidea;

Elizbasorako bidea.**(Itzuregi bidezaharra)**

* Alkizako Herriburua-Aritzetegi **(Iturriotz bidea)**

- Alkizako Hernio auzoan Lizarzelai eta Aritzeta Gain artean galtzada zatiak Iturriotz bidean. En Alkiza junto a la Ermita de Santiago hay restos de calzada empedrada. Ramal del Camino de Santiago? e igualmente ruta histórica de trashumancia (Berastegi-Amasa-Villabona-Anoeta(Ateaga)-Alkiza (Patxi).

* Loidi-Urdanasi-Itzuregi -Irumugarrieta **Irumugarrietako bideak**

Urdanasiko galtzada: Urdanasatik Itzuregi norabidean badira galtzada arrastoak

*Alkizako herriburua-Areta-Santa Krutz-Lakapide (Itzuregi bidea)

*Urruzola-Aritzetegi bidea/ Urruzola aldeko galtzada

*Lizarzelai-Aranguren Berri bidea / Lizarzelai aldeko galtzada

-Hernialde-Albistur galtzada

* (Agerre burun, Abaro aldean, Lizarbakarran)

-Alkiza-Hernialde-Tolosa ardatza

*Alkiza-Arana bailara (Peru -Bentzala bidezatia) **Arana bidea**

*Alkiza-Arana-Hernialde: Hernialdeko Kalbario aldeko galtzada **Hernialdeko bidea**

* Errekalegorreko galtzada

* Basajaundegi-Abaro Azpi aldeko galtzada

-Alkiza-Larraul ardatza

*Arpitxerri-Gurutzeaga galtzada

-Alkiza-Zizurkil ardatza

*Alkiza-Aginaga (Bipagoeta-Saletxe bidezatia) Aginagako bidea

Calzadas por donde han avanzado los rebaños de trashumancia.

AGENDA 21: HERRI PLANA DEFINITUTA ALKIZAN

Garbiñe Olaberria, Agenda 21eko teknikaria

Oilategitik aldizkariko iazko alerako artikuloa prestatzen hasi ginenean, galdera asko genituen buruan, izan ere, orduan Alkizako diagnostikoaren zirriborro bat besterik ez genuen eskuartean. Orduetik hona Alkizako Agenda 21i buruzko bi Herri Batzar egin dira. Lehenengoa, 2005eko uztailean egin zena, urruti gelditu zaigu jada, baina aurtengo urtarrilaren bukaeran egindakoa begien aurrean dut oraindik: gaueko bederatzietan elkartu ginen, elurra egin berria zela! Orduko hotzak ere ahaztu zaizkigu, baina argazkietan agertzen direnen aurpegietan nabari da hango berotasun bakarra eztabaidarena izan zela! Bukaerako kafea ere hoztu zitzaigun debatea bukatu ezinean!

ezagutu ondoren, udal ordezkariekin egindako bileran Alkizako Udalak bere egiten duen behin-betiko ekintza plana osatu zen. Plan hau, iraunkortasunaren aldeko konpromiso ofizialarekin batera, martxoan eginitako osoko bilkuran onartu zen.

Honek ez du esan nahi ordea lana amaitu denik, izan ere, orain aldapa dator eta herriak planean jasotakoak betetzen joateko ahalegina egin behar du. Gainera, ez dugu ahaztu behar plana urtero errebisatuko dela eta horretarako deitutako Herri Batzarretan herritarrek ekintzen nondik norakoaren berri izango duzuela.



Kultur etxean

Ekintza-plana ikusi nahi duenak eskuragarri du udaletxean, www.alkiza.net eta www.tolomendi.net/agenda21 web orrialdeetan. Ondoren jasotzen diren ekintzak, lehentasunezko jo direnak dira:

Herritarrek etorkizunera begira herriak zenbat eta nola hazi behar duen hausnartzeko/eztabaidatzeko eta etxebizitzaren itxura eta urbanizazio modu egokiak finkatzeko bilera irekiak antolatu (arau subsidiarioen berrikuspenari lotuta, hasierako fase bezala...).

Haur Eskola martxan jartzeko kudeaketa lanak egiten jarraitu.

Herriko Eskolan berrikuntzak egiten jarraitu.

Eskolaren eta Udalaren arteko harremana hobetzeko, Eskola

Pixkanaka-pixkanaka lortu dugu Alkizan datozen 4-5 urteetan burutuko diren ekintzak definitzea. Ekintza horiek herritarrek (elkarrizketetan, Herri Batzarretan eta bestelako ekintzetan), udal teknikariek eta udal ordezkariak proposatutakoak dira. Ekintza plana herritarrekin lantzeko egindako Herri Batzar hartan, Alkizako Tokiko Agenda 21 prozesuaren barnean bigarrena, herritarrek lehentasunezko jotzen dituzten ekintzak identifikatu ziren. Herritarren lehentasunak

Kontseilutik kanpo, eskolako komunitatea osatzen duten eragile guztiak biltzeko bilerak antolatu, eskolarekin koordinatuta.

Aurreikuspenak egin ahal izateko, etorkizunean izango diren hirugarren adineko eta pertsona elbarrituei buruzko azterketa egin.

Don Juanena eraikina berritu gizarte zerbitzuak eskeintzeko bokazioarekin.

Don Juanena ereikina berritzean bertan eskain dai-

tezkeen gizarte zerbitzuei buruzko azterketa burutu. Alkizak duen kirol ekipamendu bakarra, frontoia, eraberritu edo berria eraikitzeko aukerak eztabaidatu, eta bertan gimnasio bat egokitzeko beharra aztertu.



KZgunean

Herrian bertan egin ezin diren euskara ikasteko, kultur, kirol eta aisialdi ekintzetarako urteroko dirulaguntzak eskaini edo inguruko herrietako erakundeekin hitzarmenak sinatu.

Kultur "astea" antolatu maiatzean herriko elkarte guztien artean.

Asteasutik datorren errepidea konpondu eta zenbait zatitan zabaltzeko Foru Aldundiarekin harremanak mantendu.

Herri barruan autoen eta oinezkoen arteko koexistentzia aztertu eta gestio-haremanak mantendu Gipuzkoako Foru Aldundiarekin.

Udaletxera, kultur etxera eta eraikuntza berrietara iristea ahalbideratzeko oztopo arkitektonikoak kendu ahal den neurrian.

Herrigunetik kanpo dauden etxeetan hobi septiko komunak ezartzeko beharra aztertu eta arautu.

Gas depositu kolektiboak bultzatu.

Web orrian herriari buruzko informazio eguneratua eduki.

Arau subsidiarioen berrikuspen fasean, nekazal lurrak babesteko beharra kontuan izan, eta horretarako beharrezkoak diren aholkularitza lanak eskatu.

Lehen sektorearentzat neurri lagungarriak (bideak garbitzea...) ezartzen jarraitu.

Pinu landaketak hirigunera gerturatzea ekiditeko araudia garatu.

Iraunkortasun irizpideak eguneroko udal kudeaketan txertatu.

Arau subsidiarioen berrikuspenean herritarren parte-hartzea eta herritarrek proiektuaren berri izatea bermatu.

Tokiko Agenda 21en baitan Herri Batzarrak egiten jarraitu.

URTEA ARGAZKITAN

Hona hemen, iazko moduan, urtean zehar Alkizan gertatutako hainbat eta hainbat kontu argazkitan. Argazkiak Xabier Artola, Joxean Zubiaurre, Koldo Jauregi, Itxaso Gonzalez., Gabriela Chotro, Guillermo Otegi, Maite Iraola eta Imanol Lizardirenak dira.

Jubilatuena irteera Donostiara

Aizkolariak festetan


Inuxer

Txirrindulariak festetan

Aritz Aranburu Alkizako eskolan eskalatzen

Egaña eta

Eskolako guraso eta haurra



nte egunean gastainak erretzen




Frontoia jendez beteta



Ernioko erromerian irailan



Manu Ernioko martxan



Arantxa eta Igor eskontza egunean



Josune Bereziartu eta Rixardo Otegi eskolan



Igor Gorostidi Alonso eta Fisichella



Pilota partiduetako protagonistak jaietan



Gazteen Herri-kirol saioan trontzan



k sagardotegian




Jaietan sagardo dastaketa



Alkizarrak Zelatunen Olasagasti eta perretxikuekin





Emakumeen eguneko afaria



Gorritiren animaliak jaietan



Gazteen Herri-kirol saioko taldeak



Aiztondo klasikaren irteera-aurrea



Aritz San Sebastian pilotan



Bigantxak jaietan





Balduino Ernioko martxan



Aimar Irigoien Alkizan



Parapentean, Naroa egan egiteko prest



Aizkoran



Alkizar talde bat Errioxako bodegetan

ARGAZKI ZAHARREKIN EGINDAKO LANAK

Enrike Larrarte



**Halet ziren
garsiak,
halet**



Amara garsiak agerka

Amara garsiak agerka



Kizilgizhakar garsiak agerka



SAN ISIDROKO ASTE KULTURALA ARGAZKITAN



Ikaztegietakoko dantzariak



Egur mota desberdinen erakusketa



Aulki jokoa



Soka-tiran



Abesbatza kantuan



1,2,3,...Inaxito

Baserriaren egoerari buruzko hitzaldia




Pilotariak sariak jasotzen



San Isidrotako 1. mendi ibilaldiko parte hartzaileak




Aulki jokoa



Aitor Aranburu eta bere lagunaren hitzaldia



Helduak zaku karreran



Haurren eta helduen eskulanak San Isidrotan

DENBORAPASAK

Lehen ariketa: Balduinoren erronka edo esana asmatu behar da. Haren izena idazteko erabiltzen ditugun hizkiei zenbaki bana eman diegu. Zenbaki horiez baliatuz, asma ezazu

13	7	14	15	8	2	1	5
B	A	L	D	U	I	N	O

1	2	3	2

4	3	3	5	1	6	4	2

7	8	3	3	4

4	9	2	10	4	7

2	11	8	9	7	3	3	2

9	8	12	10	7	10	11	4	1

11	7	2	10

Bigarren ariketa: sinonimoak lantzeko modu bat.

Zenbakia	Kontzeptua edo definizioa	Sinonimoa
1	Soldata	---N---
2	Likidoen neurgailu arrunta	- I - - -
3	Bi gauza berdinek zein antzekoek osatutako multzoa	-- R -
4	Zerbait diruz lortu	E - - - -
5	Munduratzeta	---O----
6	Janaria	-- K - -
7	Abereen bazka-lekua	- A - - - -
8	Nekazaria	- U - - - -
9	Besteen gaintetik nabarmentzen dena	G - - - - -
10	Iskanbila	-- T - - -
11	Zumoa	Z - - - - -
12	Patrika	S - - - - -
13	Barik	-- B -
14	Zintzoa	---L-
15	Haragi ugari duena	-- D - -

DATORREN URTERA ARTE!

